




Euskal selekzioen alde, mendi-martxa abiatuko dute zapatuan, kostaldetik: Algortatik Ziburura. ▶18

Abuztuaren 8an omenaldia egingo diote Joseba Amaro Corpas musikari urduliztarra zenari. ▶15



hiruka

Uribe Kostako astekaria



27. zenbakia

2015eko
uztailaren 30etik
irailaren 2ra arte



«Argazkiakaz goza daiteke kalean»

Christian Caujolle kritikaria izango da hirugarren urtez Getxophoto jaialdiaren komisarioa. Irailaren 3tik urriaren 4ra hamaika jarduera egongo dira.

Begihandi elkarteak antolatuta, irailaren 3an zabalduko dute Getxophoto jaialdiaren bederatzigarren edizioa. Hilabete egongo da argazki erraldoiak udalerriko ha-

maika leku publikotan ikusteko aukera. Aurten, bidaien gaineko irudiak dira protagonista; eta ohi den legez, berbaldi, lantegi, bisitak eta abar egongo dira. ▶16

Uribe Kosta jaietan



Getxo

Saninazioak Algortan

Uztailaren 29tik abuztuaren 2ra ▶2

Itzubaltzetako jaiak

Abuztuaren 2tik 8ra ▶3

Portu Zaharreko jaiak

Abuztuaren 12tik 15era ▶4

Erandio

Astrabuduko jaiak

Abuztuaren 6tik 10era ▶5

Erandiogoikoko jaiak

Abuztuaren 14tik 16ra ▶6

Altzagako jaiak

Abuztuaren 26tik 30era. ▶6

Leioa

San Bartolome jaiak

Abuztuaren 21etik 24ra. ▶7

Berango

Santo Domingo jaiak

Abuztuaren 4tik 6ra ▶8

Plentzia

Antolin Deunako jaiak

Abuztuaren 22tik irailaren 2ra ▶10

Gorliz

Andra Mariko jaiak

Abuztuaren 5etik 9ra. ▶10



Paella onenaren bila

Getxoko Nazioarteko Paella Lehiaketaren LX. ekitaldian ehun kuadrillak parte hartu dute, eta 30.000 lagun hurreratu dira Aixerrotara. ▶22

© PATXI LOPEZ



Irailera arteko azken astekaria duzue hau, beste hainbat albiste: www.hiruka.eus



ASESORÍA DE IMAGEN
ALGORTAKO ETORBIDEA, 53
944 040 680
heralgorta@gmail.com
/HERalgorta



JATETXEA KAFETEGIA BOGA
Basagoiti etorbidea, 83
48991 ALGORTA
94 491 57 94
www.restauranteboga.net



Bgo Bixu
Algortako etorbidea, 88 - 48991 Getxo (Bizkaia)
Tfnos. 94 406 25 40 - Email: becobisa@gmail.com



SALSIDU
taberna
Tiragoma eta Kana txapelketa San Inazioetan
Salidu 9 atzekoa, Algorta




lasai bar
Euskal Herria kalea, 22
ONDO PASA JALETANI!



maga calzados
Torreana 4 (98991) Algorta - Tfn.: 94 491 67 82
c.maga@hotmail.com
www.facebook.com/magacalzados



GAVRKO
GIZONENTZAKO MODA
Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



aldai
TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK
Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



Iñaki Bitxitegia
MONTBLANC, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA
Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41
Algorta



GetxoGasol
Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan
Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)



Taberna Berrí
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



KONTXI ZUZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

Getxo



Kuadrillen jaitsieragaz eman diete hasiera jaiari.

Aurrera jarraitzen dute Algortako saninazioek

Aixerrotako Nazioarteko Paella Lehiaketaren ajea kendu baino lehen heldu dira Algortako San Inazio jaiak udalerrira. Eguaztenean, uztailaren 29an, eman zieten hasiera ospakizunei, txupinaren jaurtiketaz eta kuadrillen jaitsieragaz. Algortako kaleetan, mozorrotuta eta dantza ikusgarriak ibili ostean, festakaz jarraitzeko ordua da. Saninazioek abuztuaren 2ra arte iraungo dute, eta egun horietan guztietan, kuadrillenzako, auzotarrentzako zein bisitarientzako hamaika jardura prestatu dituzte Algortako Jai Batzordeak eta txosnetako eragileek. Aurten, San Nikolas plazara bueltatu dira kontzertu nagusien oholtza eta Jai Batzordearen txosna, hainbat urteren ostean. Beste eragile guztien txosnek, herriz, Telletxeko aparkalekuan jarraitzen dute, betiko legez. Oholtza txiki bat ipini dute txosna horiek aparkalekuan, bertaratutakoei ordezkari ikuskizunak zein kontzertuak eskaintzeko. Ekitaldi askoren artean, besteak beste, aipa daiteke abuztuaren 1eko Gazte Eguna; San Nikolas plazan egingo dute. ◀

Ekitaldi batzuk

Uztailak 30, eguna

18:00 Emakumeak oholtzara; txosnetan.
22:30 Drop, Back Bone eta Anestesia taldeen kontzertuak, San Nikolas plazan.
Gau osoan Sexu Gaua, txosna-gunean.

Uztailak 31, barikua

12:30 Euskal dantzen erakustaldia, San Nikolas plazan.
19:30 Bertso Maratoia, herrian zehar.
22:00 Hexen eta Jarrera taldeen kontzertuak, txosna-gunean.
23:00 Tutan Come On eta Patrol Destroyers taldeen kontzertuak, San Nikolas plazan.
23:00 Suak, Pirotecnia Astondoagaz.

Abuztuak 1, zapatua

12:00 Kuadrillenzako eskalada-desafioa.
15:00 Gazte-bazkaria, San Nikolas plazan.
19:30 Rally umoristikoa, kuadrillentzat.
20:00 Boxeo Gaua, Zabalako eskolan.
22:30 Kontzertuak: 4anai, Erasoka eta Cockney Rejects, San Nikolas plazan.

Abuztuak 2, domeka

08:30 XVII. Txipiroi-lehiaketa.
12:00 Kuadrillenzako tortilla-txapelketa.




Egunkariak
prentsa eta aldizkariak
guri izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!
Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

SARTU GURE WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria





Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 2, domeka

09:00 Nekazaritza-azoka, Ibaiondon.

18:00 Dangiliske taldeagaz plaza-dantza, Santa Eugenia.

Abuztuak 4, martitena

15:00 Herri-bazkaria, Ibaiondon.

21:00 Goitibeheren igoera, Txistulariaren aldapan.

23:30 Kuadrillen bazkaria, San Nikolas plazan.

23:30 Erromeria, Oxabi taldeagaz Dolores Ibarrurin.

Abuztuak 5, eguaztena

19:30 Pregoiaren irakurketa eta txupin-jaurtiketa, Santa Eugenia.

21:30 Zasi Eskolaren dantza-alardea, txosna-gunean.

22:00 Transformismoa: Las Fellini, txosna-gunean.

23:30 Kontzertua, Priscilla Band taldeagaz txosna-gunean.

Abuztuak 6, eguena

19:00 Futbol-txapelketa, (Gernika-Portugaleta) Gobela futbol-zelaian.

20:30 Bertso-saioa, txosna-gunean.

22:30 Distrito Suicida, Governors eta Kaotiko taldeen kontzertuak, txosna-gunean.

Abuztuak 7, barikua

17:00 XLVIII. Poteo Rallya, Gobelaurren.

22:00 Play-back proba, Dolores Ibarrurin.

Abuztuak 8, zapatua

09:00 Putxeren V. lehiaketa, Ganetan.

21:30 XVIII. Ska-reggae jaialdia: Solo Banton, Soweto, Potato, Winston Cleery eta Guda Dantza taldeakaz, txosna-gunean.

Abuztuak 8, zapatua

12:00 Tortilla-txapelketa, Artatzen.

14:30 Munduko dantzen erakustaldia, Artatzen.



ERROMOKO X. HERRI KROSA

ABUZTUAK 6 AGOSTO

19:45ean Ganeta Enparantzan

Txikiak (3-9 urte) 450m Gazteak (10-15 urte) 900m Nagusiak eta beteranoak 4.000m

GURE ETXEA

taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Gidabaimena EUSKARAZ

JAN INAZIO AUTOEKOLOXIA

Telletxe 13, Algorta

GETXON GIDARI EUSKALDUNAK

GARAIZAR

BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

CHARLOT

Barra kanpoan, 6:00ak arte irekita
ONDO PASA JAIETANI!

PEÑE Atletiko Club GOIXOKO

UNDER KERREREA

BAR GOIXOKA - Alango, 14 - Algorta (Getxo) - tel. 94 602 53 93

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa"
Prentsa - Fruitu lehorak - Aldizkariak - Libareriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

OSABIDE HORTZ IZULINIA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

hiruka

Urbe Kostako astekarria

Zure taberna, jatetxea edota komertzioa hemen agertzea gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:

944 911 337
publi@hiruka.eus

www.hiruka.eus



Getxo

San Lorentzo azoka hartuko du Algortak abuztuaren 10ean

Urtero legez, abuztuaren 10ean San Lorentzo azoka egingo dute Algortako San Nikolas eta Bihotz Alai plazetan. Aurten, 62 salmenta-postu egongo dira, guztira. Goizeko 10:00etatik 14:30era arte, bisitariak euskal baserriko ohiko produktuak erosi ahal izango dituzte, berbarako: barazkiak, frutak, gaztak, ogia, ezta eta apaindurako landareak. Trikitilari eta gaitarien taldeek plazetako jai-giroa alaitzen duten bitartean, taloa txorizoagaz, sagar-doa eta bestelako produktuak dastatu ahal izango dituzte bertaratuko direnek. Egunari amaiera emateko, Biotz



Kalitatezko produktuak erosi ahal izango dira.

Alai abesbatzak kontzertua eskainiko du Bihotz Alai plazan, 22:00etatik aurrera. ◀



Algortako Portu Zaharreko Jaiak

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 12, eguaztena

12:00 Txupinaren jaurtiketa.

12:15 Umeen kuadrillen jaitziera, Kasinoko plazatik.

22:30 Kontzertuak: Hexen, Nazca eta Dingos & Flamingos, oholtza handian.

Abuztuak 13, eguena

10:00 Sokamuturra.

11:00 Umeen pintura-lehiaketa, Etxetxun.

16:30 Nasapuntakoa eta salto-lehiaketa.

18:30 Euskal Herriko lasto-jaurtiketaren txapelketa, eta IV. Errugbi tokata-lehiaketa.

19:30 Zumba.

21:30 Zezensuzkoa.

21:30 Kuadrillen ikuskizuna, eta ostean, DJ Prince, oholtza handian.

Abuztuak 14, barikua

17:00 Antzara-jasoaldiak.

21:30 Ou Mama taldearen kontzertua, portuko plazan.

21:30 Erromeria, Urrats taldeagaz oholtza handian.

21:30 Haurrentzako zinema, Doctor Pedro Bilbao plazan.

22:00 Dantzak, Itxas Argia taldeagaz murrutzar handian.

Abuztuak 15, zapatua

09:30 Marmitako txapelketarako izen-ematea.

10:30 Umeentzako arrantza-lehiaketa.

12:00 Marmitako txapelketa: marmitak 14:00etan aurkeztu beharko dituzte, Etxetxun.

17:00 Beteranoen estropada.

18:00 Bertsolariak, portuko plazan: Ekaitz Larrazabal, Peio Etxebarria eta Fredi Paia.

20:30 Kuadrillen lehiaketako sari-banaketa, portuko plazan.

21:30 Erromeria, Honat taldeagaz, eta ondoren, Las Tea Party DJ's.



REBEL TATTOO
Basagoiti 73, 48991 ALGORTA
TF. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

BODEGUILLA BUTRON
Bidebilitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

PINTXO POTE OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu Zaharra Bar

TABERNA Unai JATETXEA
ALGORTAKO ETORBIDEK, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNXUNXI@HOTMAIL.COM

EKIN
Jatetxea
Bolue 4, Algorta - 94.608.04.62

PIPER'S
IRISH PUB
94 491 11 85
Avenida Basagoiti, 47, bajo
48991 Algorta, Getxo, Bizkaia
www.pipersalgorta.com

KAROLA ETXEA
Aretxondo, 22 - Puerto Viejo
48991 Algorta - Bizkaia
Tel: 944 60 08 68 | Fax: 944 91 42 54
E-Mail: karolaetxea@karolaetxea.net
www.karolaetxea.net

BASTER
taberna
Orobio kalea, 2 Algorta

ABIAN
PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

LAINOA
taberna
Konbinatu eta pintxo bereziak
Urgull kalea, Algorta

JOLAS AURRE
Andres Cortina, 4
Algorta - Getxo
Tel. 94 491 09 67
608 577 446
cafeteria@pensionbasagoiti.es
ONDO PASA JALETAN!

Erandio



Astrabuduko jaiak Sanlorentzoak

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 1, zapatua, Kuadrilla Eguna

15:00 Kuadrillen bazkaria eta probak, Mendiguren plazan.

Abuztuak 6, eguna

11:00 Neska-mutilen kalejira, Ulpianogaz.
19:00 Kuadrillen jaitsiera; pregoia eta txupinazoa.
22:00 Dantzaldia, Josu Murueta plazan.

Abuztuak 7, barikua

11:00 Puzgarriak (egunero).
20:00 Txosnetan elkartasun-ordua (egunero).
22:30 Kuadrillen play-backak.
00:30 Berbena, Kresalagaz.

Abuztuak 8, zapatua

10:00 Marmitako lehiaketa, Madaripe landan.
20:30 Sakatu elektro-txaranga.

Abuztuak 9, domeka

17:00 Kuadrillari, sabotajea.
22:30 Los Bravos taldeko Mike Kennedyren kontzertua.



**ASTRABUDUKO
BATZOKIA**

94 467 38 09
94 404 89 50

EAL PNV

txakoli
**mota
ganeTx.**
txakolina

leioa Urbe enpedea 34 (Alaranda Parke) Gohier Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

**DIDAK
HAMILTON
IDIOMAS**

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landá 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TF: 94 676 30 12
info@didakhilton.com

COMERCIAL
de LIMPIEZA
VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**Jaietako
info guztia
eta argazki
galeriak:**

hiruka.eus

**LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINITZA**

SGS
Nº 0810014

SGS
Nº 0810015

luberr

- Soropila Ezartzea
Luzerria prestatzeko lanak, drainatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzio-organitze lanak eta beste lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongaitzea, egurastea, aratzea eta destinkatzea, bemelkatzea, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, beritzeko, zuhaitza opingariak inauszea, esabatelo inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Avpe ibaiertza 28A behelko solairua B12 lokala (ERANDIO) Megi: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net - www.luberr.biz

OLGETAN SOLAS 2015

Familia giroan ondo pasatzeko kirol-jolasak

ERANDIOKO KOA (ekainak 5)
FAOETA (ekainak 13)*
KUKULARRA (ekainak 28)
ARRIAGA (uztailak 5)*
GOIERRI (uztailak 12)
ASUA (uztailak 18)
ASTRABUDUA (abuztuak 9)
SANTIMAMI (abuztuak 18)
ALTZAGA (abuztuak 27)
ENEKURI (irailak 12)
LUTXANA (irailak 19)

ERANDIOKO JALETAN

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.erandioko.euskarazerbitzua.eus
euskara@erandioko-udala.net - 944890428

E!
Erandio Udala

Kulki

BEA DFB

Erando

Oporrak erre aurretik, Altzagako jaiak datoz

San Agustin jaiak ospatuko dira abuztuaren 26tik 30era; ia 100 jarduera egingo dituzte festetan.



Kuadrillak izango dira jaietako gatza eta piperra.

Erandioko Jai Batzordeari esker, altzagarrek adin denentzako festa-egitarau zabalaz gozatu ahal izango dute jaietan. Kuadrillen lehiaketa ardatz hartuta, ez dira faltako tradizioari lotuta egiten diren jarduerak, ezta gazteentzat zein neska-mutilentzat prestatutakoak ere. Berbarako, Erandio Skate elkarteak txikienezko lehenengo patin lasterketa abiatuko du abuztuaren 27an, 18:30ean. Handik ordu erdira, ostera, ekitaldi historikoa izango da, Erandioko Kirol Elkarteak bere mendeurrenaren gaineko liburua aurkeztuko du eta. Amaitzeko, aukera zabala izango da jaiak euskaraz bizitzeko, esaterako, ohiko bertsoaldiagaz: Itxaso Paia, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Agin Laburu izango dira zapatuan. ◀

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 26, eguaztena

12:30 Txupin-*flashmob*-a, pregoia eta txupina.
15:00 Urdaiazpikoaren zozketa, Jado kalean.
19:00 Kuadrillen jaitziera eta argazkia.

Abuztuak 27, eguena

12:00 Tortilla-lehiaketa, Irailaren 23a plazan.
17:30 Olgetan Solas sendi-jolasak.
19:00 Erandioko Kirol Elkartearen 100. urteko liburuaren aurkezpena, Obieta kalean.
21:30 Gala afaria, Azoka Zaharrean.

Abuztuak 28, barikua

12:00 Meza nagusia eta ohorezko aurrekua.
17:00 Kuadrillen Triatloia, udaletxe aurretik.
20:30 Larrain dantza, metroko zabalgunean.

Abuztuak 29, zapatua

15:00 Gazte-bazkaria, txosnetan.
17:00 Estropada: Erandioko XXVIII. bandera.
20:00 Bertsolariak, udaletxeko plazan.
22:30 Kuadrillen afaria.
00:00 Joxe Replay eta erromeria Urratsegaz.

Abuztuak 30, domeka

17:00 Goitibeherak.



Erando/Leioa

Muga bako jaiak, mugako Santimami auzoarentzat

Erando eta Leioako Santimami auzoak abuztuaren 17an ekingo dio jaiak ospatzeari. Aurten festak astelehen eta martitzen buruzurietan izan arren, ohiko alaitasunez eta gogoz jardungo dute. Astelehen goizeko txupinaren ez tandatik hurrengo gaueko azken traka bota bitartean, santimamiztarrek hainbat ekitaldi egingo dute auzotar zein kanpotarrentzat. Astelehenean bertan, 18:30etik aurrera idi-probak egingo dituzte. Martitzenean, ordea, igel-toka, herri-bazkaria, Olgetan Solas ekimena, Dj Xaibor, eta txokolata-jana izango dira. ◀

Egitaraua

Abuztuak 17, astelehena

09:45 Suziriak, jaien hasiera eta kalejira.
11:30 Meza eta nagusientzako luncha.
13:30 Txinberen txapelketa.
18:30 Idi-probak, eta haur-jolasak.

Abuztuak 18, martitzena

10:00 Kalejira.
11:30 Meza, haur-jolasak eta bits-jaiak.
13:00 Igel-toka txapelketa.
14:30 Herri-bazkaria. Ostein, mus-txapelketa.
17:30 Olgetan Solas kirol-jolasak sendientzat.
18:30 Dj Xaibor (diskofesta). Txokolata-jana.



Abuztuaren 15ean, 50. urteurrena ospatuko du Goi-Aldek. © GOI-ALDE DANTZA TALDEA

Barikutik domekara, Erandiogoikoko jaiak!



Abuztuaren 14an helduko dira Erandiogoikora Andra Mariren omenezko jaiak. Aurten, inoiz baino bereziagoak izango dira, bertako Goi-Alde dantza-taldeak mende erdia beteko baitu hurrengo egunean, zapatuan, Andra Mari egunean. 1965ean egin legez, plazara irtengo dira euskal folkloreak erakustaldia ematera, baina, orduan ez bezala, Txorie-riko dantzez aparte, aukeran izango dute Bizkaiko eta Euskal Herriko erreperitorio zabala. Gainera, Jose Luis Intxaurbe «Kotxelu»-k gidatu zuen talde txikia 160 bat laguneko familia zabala bihurtu da. Bertan, lehenengo urteetako dantzari batzuek eusten diote, seme-alabak eta ilobakaz batera. ◀

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 14, barikua

20:00 Txupina, eta kalejira txistulariakaz.
21:30 Saiheski errearen dastaketa.
00:00 Berbena: Honat. Gaupasa: Oihan Vega.

Abuztuak 15, zapatua

12:30 Dantza-erakustaldia, Goi-Alde dantza-taldeagaz, 50. urteurrena ospatzeko.
15:00 Herri-bazkaria (Txartelak Dandakan: helduentzat, 20 euro, eta umeentzat, 10 €).
16:00 Puzgarriak.
17:30 Erromeria, Luhartz taldeagaz.
23:00 Diskofesta.

Abuztuak 16, domeka

11:00 Kuadrillen arteko paella-lehiaketa.
16:00 Kuadrillen arteko herri-kirolak.



Leioa

San Bartolomen ez da jairik faltako

Santimamiko jaiak atzean utzita, abuztuaren 21ean hasiko dira Basaez auzo leioztarreko festak. Hala, San Bartolome basiliza inguruan, adin eta gustu denei begira prestatutako jarduerak egongo dira hilaren 24ra arte, auzokoek eta bertara hurbilduko direnek goza ditzaten. Horrenbestez, barikuan jaurtiko dute txupina 19:00etan, ekitaldiz beteriko lau egunei hasiera emanaz. San Bartolome jaietan ezin daitezke aipatu barrik utzi, besteak beste: mus-txapelketa arina, asto-probak, tortilla eta margo lehiaketak, aurten 50 urte beteko dituen marmitako sariketa... Eta hirugarren aldiz egingo diote omenaldia, J.F. Mendieta Txirlo zenari, motorren topaketa antolatuz. Berrikuntzei dago kienez, zapatuan, marmitako ikastaro magistrala izango dute gazteenek, goizeko 11:00etatik aurrera. ◀

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 21, barikua

19:30 Kuadrillen arteko brindisa.

23:30 Gau-jaia, Oxabi taldeagaz.

Abuztuak 22, zapatua

11:00 Umeentzako marmitako ikastaro magistrala.

23:30 Gau-jaia, Egan taldeagaz.

Abuztuak 23, domeka

13:00 Motorren III. Topaketa, Txirlo-ri omenaldia.

14:30 VI. Herri-bazkaria, Trikikupelagaz.

20:00 DJ Xaibor.

Abuztuak 24, astelehena

11:00 Umeentzako margo-lehiaketa.

13:00 Nagusientzako lancha.

20:30 Txokolata banatuko dute.



Sopela



info+: www.sopela.eus eta turismoa.sopelaudala.org

Labarrak ezagutzeko beste aukera bat, domeka honetan

Turismo-bulegoak antolatutako beste bisita gidatu bat egingo da domeka honetan, abuztuaren 2an, labarrak; goizeko 11:00etan hasiko da. Halako bisita gidatuak aspaldi antolatzen dira, udalerrian turismoa bultzatzeko helburuagaz, eta herriak dauzkan hainbat ezaugarri agerian jartzeko. Gainera, geologiaren ezagutza indartu eta memoria historikoa bul-

tzatu gura dute. Abuztuaren 30ean ere egingo da beste irteera bat.

Parte hartzeko, izena eman behar dago, turismo-bulegoan (Loiola Ander Deuna, 28) edo Larrabasterrako informazio-puntuan (Aretxabaleta enparantza, 1). Telefonoz eta Internetez ere egin daiteke: 94 406 55 19 edo turismo@sopelana.eu. Bisitari bakoitzak 3 euro ordaindu beharko ditu. ◀

Esnatu Leioak badauka bulegoa

Maiatzaren 24ko hauteskundetan 4 zinegotzi lortu zituen Esnatu Leioa-k. Uztailaren 21era arte, ordea, ez du bulegorik eduki Ahal Dugu-k (Podemos) bultzatutako alderdi horrek. Udaletik adierazi dutenez, «udaletxean ez da leku fisikorik egon bulego berri batentzat». Denak okupatuta egon ei dira udal langileak eta gainontzeko talde politikoak. Hala, hainbat aukera aztertu ostean, langile bat lekuz aldatu dute. «Honetaz informatuta egon da Esnatu Leioa momentu oro», adierazi dute udal iturriek. Ruben Belandia Esnatu Leioa-ko bozeramailearen arabera, berriz, «hasieran ez ziguten ezer esan, eta idatziz eskatu arte, ez genuen erantzunik jaso». ◀

Arratoiak arazoak, Langileria kalean

Lamiakoko Langileria kalearen hasieran, biribilgunetik hurbil agertu diren arratoiak kezkatuta daude bertoko bizilagunak. Hala, Udalarideitu diote hainbatek. Agintari leioztarrek azaldu dutenez, Udalak erabaki du espaloian dauden berdegune zatiak kentzea; antza, arratoiak ezkutatzeke leku apropos bihurtu direlako. Bestalde, pribatua ei da biribilgunetik Langileria kaleko lehen etxebizitzera-erakinetarainoko tartea. «Beraz, jabea arduratu behar da bere maturan; daborduko, Udala jabearekin harremanetan jarri da», udal iturriek gaineratu dutenez. Dirudienaz, astero egiten dute arratoiak hiltzeko tratamendua. ◀

Sopelako Udala

Gobernu-taldeko zinegotziak eta arlo arduradunak



GONTZAL HERMOSILLA RAMOS
Alkatetza
EAJ



LEIRE BASAURI CASTELLANOS
Alkateordetza; Kultura, Euskara eta Hezkuntza; Ogasuna eta Kontuen batzorde berezia
EAJ



TERESA FERNANDEZ GARCIA
Alkateordetza; Enplegua eta Ekonomiaren sustapena
PSE-EE



NAIARA IBARZABAL ARRASATE
Kiroa, Aisialdia eta Gazteria; Gizarte-ekintza, Berdintasuna eta Emakumea; Turismo, Informatika, Komunikazioa eta Merkataritza
EAJ



FELIX GABARAIN AMENABAR
Udal-administrazioa eta Langileak; Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena, Herrilanak eta Zerbitzuak
EAJ



EMILIO RAMOS RODRIGUEZ
Herritarren segurtasuna
EAJ

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf. 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Hartzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela

Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28

info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus



Berango



Eliza eta udaletxearen ondoko landan izango dira jaiak.

Abuztu hasieran, Santo Domingo jaiak

Abuztua hasi bezain pronto, Santo Domingoko jaiak ekingo diete Berangon. Santa Ana auzoko festak amaitu dira, baina oraindino ere badago zer egiterik udalerrin honetan gozatzeko jarraitzeko. Abuztuaren 4an hasiko dituzte ospakizunak, eta abuztuaren 6ra arte iraungo dute. Hiru egun horietan, bertaratuiko diren lagunek aukera izango dute hainbat jardueragaz gozatzeko, urtero legez. Martitzenean, abuztuaren 4an, mezagaz hasiko dituzte ospakizunak, 12:00etan. Ondoren, nagusientzako hamaiketako eta Simon Otxandategi dantza-taldearen ikuskizuna izango dira, elizaren ondoko landan. Arrastian, idi-probak, umeentzako ikuskizuna, pilota-partidak, eta hanburgesen banaketa izango dira, besteak beste. Hurrengo egun bietan, umeentzako jarduerak, mariatxiak, familientzako jolasak eta tortilla-txapelketa iragarri dituzte, beste hainbat jardueraren artean. Hiru egunetan, gainera, iluntzean erromeriakaz dantzatzeko aukera egongo da: Egan, Joselu Anaiak eta Xaiborregaz. ◀

Egitaraua

Abuztuak 4, martitzena

- 12:00 Meza.
- 13:00 Nagusientzako hamaiketako, eta Simon Otxandategiren dantza-erakustaldia.
- 19:00 Idi-probak.
- 19:00 Umeentzako pailazoaren ikuskizuna.
- 19:30 Pilota-partidak.
- 20:00 Hanburgesen banaketa.
- 21:00 Simon Otxandategi abesbatza.
- 22:30 Erromeria, Egan taldeagaz.

Abuztuak 5, eguztana

- 12:00-14:00 eta 17:00-20:00 Umeentzako jarduerak.
- 13:30 eta 14:30 Bits-festa.
- 18:00 Umeentzako kirol txapelketa, Kirolgunen.
- 19:30 Mariatxiak.
- 21:00 Oilasko pintxoaren banaketa.
- 21:00 Erromeria, Joselu Anaiak taldeagaz.

Abuztuak 6, eguena

- 11:00 Tortilla-txapelketa.
- 13:00 Familientzako jolasak.
- 18:00 Gorritiren animaliakaz, ikuskizuna.
- 20:30 Xaiborregaz, diskofesta, eta txokolate-dastaketa.

«Giroa sortzeko», poteoa egingo dute abuztuaren 1ean

Santa Ana auzoko jaien ostean, herriko giroari eusteko ahalegina egin gura du Berangoko Epertikere kultur elkarteak. Horretarako, elkarte horretako neska-mutil gazteek poteoa antolatu dute abuztuaren 1erako, zapatua. Hitzordua arrastiko 06:00etan ipini dute, Basotxun. Hala, poteoan ibiltzeaz gainera, pintxoak banatu, musika jarri, jokoak egin eta beste hamaika jarduera egingo dituztela iragarri dute. Azaldu dutenez, ekimen horregaz «giroa emango bagenio, Berango izango zen...». ◀

info+: epertikere.wordpress.com



Elizaren ondoko landan egiten dute bakailaoa.

Bakailaoaren eguna, abuztuaren 9an

Santa Anako eta Santo Domingoko jaien ostean, bakailao eguna helduko da Berangora. Abuztuaren 9an ipini dute jardunaldi gastronomiko horretarako hitzordua. Hala, egun osoan, bertoko kuadrillak batuko dira Berangoko elizaren ondoko zelaian eta inguruetan, bakailaoa egiteko errezetarik onenakaz. Bakailaoa egiten duten bitartean, umeentzako parkea egongo da puzgarriakaz, ohe elastikoakaz eta tailerrakaz. Haur-parke hori, goizeko 11:30ean zabalduko dute, eta 14:30era arte iraungo du; os-

tera, arrastian, 04:30etik 06:30era arte egongo da zabalik. Era berean, arrastian ere, gerrikoak astintzeko eta dantzatzeko musika egongo da. Jardunaldi gastronomikoa goizeko 8:00etan hasiko dute, ordu horretarako kuadrilla ugarik euren txokoak prestatuko baitituzte, behin-behineko sukaldea ahalik eta ondoen edukitzeko. Daborduko, kuadrilla bakoitzak badu bere txokoa hitzartuta, eta euren artean berbaz ibiltzeko eta errezetak trukatzeko egundoko aukera izango dute, goizean goizetik hasita. ◀



TABERNA TXOKOA



Sabino Arana, 18 - 48649 BERANGO-Bizkaia
94 668 09 61

Cazuelas
Hamburguesas
Bocadillos
Sandwiches
Platos combinados
Tortillas por encargo
Menús especiales
Servicio de catering
Cumpleaños



Urduliz



Urdulizko metro-geltokiaren eta trenbidearen lanak aurrera doaz.

Autobusa Elortzan gelditzeko eskaera

Metroaren ordeko autobusa Urdulizko batzokiaren ondoan ez ezik, Elortza auzoan ere gelditu dadila; horixe eskatu dio Urdulizko Udalak Bizkaiko Garraio Partzuergoari (BGP). EH Bilduren hiru zinegotziek aurkeztu zuten horretarako mozioa aurreko udalbatzan, eta alderdi denek onartu zuten, aho batez. Geraleku berriak bermatuko luke bertako eskolako ikasleek datorren ikasturtean eskolara autobusean igo ahal izatea, EH Bilduren ustez. Sopela eta Plentziaren arteko metro-zerbitzua or-

dezkaten du Metro Bilbaoren autobus-linea horrek. Gutxienez, 2016ko ekainera arte mantenduko da autobusa, Urdulizko metro-geltoki berria eraiki eta trenbidea lur azpian sartu arte. Hasieratik, Elortzatik pasatu da autobusa, baina ez da bertan gelditzen.

Martxan daude, daborduko, trenbidea lurraren azpitik igaro dadin egin beharreko lanak; abuztua amaitu arte luza litezke tunelaren hormak sendotzeko obrak. BGPk ohartarazi du zartanda handia sortuko duela horretarako erabiliko duten makinariak. ◀

Lemoiz

Olatuen energia ikertzeko

Itsasoko energia aprobetxatzeko apustua egin du EAEk. Hala, energia-iturri horren ustiaketa-ri heldu baino lehen, Bimep izeneko proiektua ipini dute martxan Armitzako kaiaren aurrean. Hala, itsas instalazio batek ikertuko ditu olatuen energia hartzeko gailuak, hainbat itsas azpiegituraren bidez. Asmoa da konponbideak eskaintzea itsas energia aprobetxatzeko teknologiak garatzen dituzten enpresa guztiei. Hala, itsasoan, benetakoa egoeretan ikusiko dute enpresa horietako teknologia baligarria den ala ez. Horrek guztiak,

jakina, denbora eta baliabide asko eskatuko lioke enpresa bakoitzari, bere kabuz egingo balu, berbarako: probak egiteko beharrezkoak diren baimenak banaka eskatzea, amarratzeko kableak egokitzea, konexio elektrikoak lehorrera bideratzea. Ez litzateke egingarria edo bideragarria izango haientzat. Hori horrela, Bimepek «eskakizun eta premia guztiak asetzeko moduko eremu bat eskaintzen du, gailuak ikertzeko eta konektatzeko prest dagoena». Honako erakunde hauek osatzen dute Bimep sozietate kudeatzailea: Eusko Jaurlaritzaren ener-



gia-agentzia den Energiaren Euskal Erakundeak (%92), eta IDAE Espainiako Energia eta Turismo Ministerioaren energia-agentziak (%8). Denera, 22 milioi euroko inbertsioa izan da. ◀

Zugastietako udalekura joateko aukera, abuztuan

Zugastietan aste oso bat emateko Udalekura antolatu du Lemoizko Udalak. Abuztuaren 17tik 23ra artekoa izango da egonaldia, eta 6 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei dago zuzenduta. Arduradunek azaldu dutenez, udalekura egin ahal izateko, gutxienez 10 umek eman beharko dute izena. Horretarako, abuztuaren 7ra arte egongo da aukera, Lemoizko kultur etxean, 10:00etatik 13:30era. Udalekuaren prezioa 110 eurokoa izango da, eta Zugastietako aterpetxean lo egingo dute umeek. ◀

info+: www.lemoiz.eu

**ORAIN,
AZKEN
ORDUKOAK!!**

Ametsetan? Egizu legera!

EROSKI bidaiak

Ametsetan? Egizu legera!

www.escaparatviajes.es / www.viajeseroski.es

Gorliz

Santiagoen ostean, badatoz Andra Mariko jaiak

Santiago jaien biharamuna gaindituta dutenek Andra Mariko jaiak gozatzeko aukera izango dute abuztuaren 5etik aurrera. Ajeagaz jarraitzen dutenek, ostera, zelan edo hala egin beharko diete aurre festei. Abuztuaren 5etik 9ra arte iraungo dute Andra Mariko jaiak, eta tarte horretan, bertokoek zein bisitariak hamaika jarduera izango dituzte aukeran.

Abuztuaren 5ean, eguaztenagaz, emango diete hasiera festei, goizeko 10:00etan, txupinaren jaurtiketaz eta kalejiragaz. Horren ostean, dantza-erakustaldiak, buruhandiak, kalejirak, txapelketa gastronomikoak, kantaldiak, umeentzako jolasak eta beste ekimen ugari hartuko dituzte Gorlizko kaleek. Iluntzean, gautxorientzako zer eginik ere egongo da, erromeria zein DJakaz. Domekan, abuztuaren 9an, andramariak agurtuko dituzte, datorren urtera arte! ◀

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 5, eguaztena

10:00 Txupinaren jaurtiketa, eta kalejira.

12:00 Ohorezko aurrekua.

12:00 Dantza-erakustaldia.

20:30 Erromeria, Roberto Etxebarriagaz.

Abuztuak 7, barikua

11:00 Kalejira buruhandiakaz.

12:30 Umeentzako jolasak.

20:00 Herriko Kantu Gira.

23:30 Berbena DJ Kul-egaz.

Abuztuak 8, zapatua

10:30 XXVIII. Herri-krossa.

11:00 Tortilla-txapelketa.

23:00 *Combinaz* ikuskizuna.

00:10 Gaudantza Djagaz.

Abuztuak 9, domeka

11:00 Paella-txapelketa.

19:30 Erromeria.



Eta laster batean, Urezarantza auzoko jaien ordua!

Andra Mariko festen ostean, Gorlizko udako azkeneko jaiak helduko dira, abuztuaren 15ean, zapatuagaz. Ospakizunek eta jai giroak Urezarantza hartuko dute, bi eguneko egitaraua prestatu dute horretarako. Hala, zapatuan, lunchagaz emango diete hasiera egunari, 13:00etan. Ondoren, tortilla eta tute txapelketetan parte hartzeko aukera egongo da kiroldegian, arrastiko 04:30etik aurrera, eta iluntzeko 07:00etan umeek ikuskizun batez gozatu ahal izango dute. 20:00etan, herriko Aratz dantza-taldeak dantzaldia eskainiko du; eta horren ostean, Oihan Vegak gidatuko duen disko-festetan gerri mugitzeko zein dantzan egiteko aukera egongo da.

Hurrengo egunean, abuztuak 16, domeka, XLV. Sukalki Txapelketa egingo dute Okarantxun, 10:30ean; bitartean, trikitilariak inguruak alaituko dituzte. Arrastiko 05:00etan, sariak

banatuko dituzte, eta herri-kirolen ikuskizuna eta gero, amaiera emango diete Urezarantzako jaiak. ◀

Egitaraua

Abuztuak 15, zapatua

13:00 Luncha bertaratuko diren denentzat, trikitiaren doinuek giroa alaituko dute.

16:30 Tortilla eta tute txapelketak, kiroldegian.

19:00 Umeentzako ikuskizuna.

20:00 Dantzaldia Aratz dantza-taldeagaz.

21:00 Disko-festa, Oihan Vegagaz.

22:30 Zezensuzkoa.

Abuztuak 16, domeka

10:30 XLV. Sukalki Txapelketa Okarantxun.

12:00 Trikitixa.

13:00-14:30 Sukalki txapelketaren aurkezpena.

17:00 Sukalki txapelketaren sari-banaketa.

18:00 Herri-kirolen ikuskizuna, eta umeentzako jolasak.

20:30 Jaien amaiera.

Plentzia

Antolintxu eta Madalentxu bueltan, abuztu amaieran!

Plentziako udako azkeneko jaiak helduko dira Antolin Deunako ospakizunakaz. Abuztuaren 22tik irailaren 2ra bitartean, hiribildukoak alkanadora urdinez jantziko dira Antolintxu eta Madalentxuri ondoetorria emateko, eta eurakaz batera, inguruak alaitzeko. Tarte horretan, Plentziako eta inguruetako bisitariak hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute: bazkariak, kontzertuak, dantzaldiak, txapelketa gastronomikoak, umeentzako jolasak, kirol lehiaketak, kantaldiak eta mozerro-lehiaketak, besteak beste. Irailaren 1ean, gainera, tradizio handiko eskualdeko nekazari eta abeltzainen azoka egingo dute, 09:00etatik aurrera. Azoka horrek CXXIII. edizioa beteko du aurten, eta horren ostean, euskal jantzien erakustaldia egingo dute, 12:00etan. Irailaren 2an, berriz, Antolin Deunako koktel-lehiaketaren ostean, Antolintxuri eta Madalentxuri agur esango diete. ◀

Ekitaldi batzuk

Abuztuak 22, zapatua

12:00 Antolintxu eta Madalentxuren ohorezko meza, eta ondoren, aurkezpena.

21:00 Benito Lertxundiren kontzertua, Jai Alai pilotalekuan.

Abuztuak 28, barikua

14:00 Herri-bazkaria.

17:30 Antolintxu eta Madalentxuri harrera, ostean, txupinaren jaurtiketa.

20:00 Itxas Eder taldearen dantza-erakustaldia.

24:00 Dantzaldia, Drindots taldeagaz.

Abuztuak 29, zapatua

10:00 Umeentzako tortilla-txapelketa.

18:00 Umeentzako play-back lehiaketa.

23:00 Dantzaldia, Talky eta Honat taldeakaz.

Abuztuak 30, domeka

10:00 Euskadiko marmitako txapelketa.

17:30 Kuadrillen olinpiadak.

18:30 Umeentzako mozerro-lehiaketa.



Inazio Deuna eguna ospatuko dute uztailaren 31n

Uztailaren 31n, barikuagaz, San Inazio eguna ospatuko dute Plentzian. Festa-giroak hartuko du herriko elizaren ingurua, goizeko 11:00etatik aurrera, ordu horretan umeentzako jolasak hasiko baitira Elizako plazan. Ordu bi beranduago, 13:00etan, Inazio Deunaren ohorezko meza nagusia egingo dute. Arrastian, ostera,

Plentziako Itxas Eder taldeak dantza-erakustaldia egingo du plaza berean, 19:00etan. Ondoren, arrastiko 08:00etan, triki-poteoa egingo dute hainbat tabernatik. Azkenik, behin ezarriak freskatuta, lagun artean edo bikoteka dantzan egiteko aukera egongo da Jon Urbietagaz, iluntzeko 09:00etatik aurrera. ◀

Erdi Arora bueltan, abuztuaren 7tik 9ra


Udaren erdian gaudela, jaien arteko lasaitasunean, Plentziako uria Erdi Arora bueltatuko da abuztuaren 7an, 8an eta 9an. Hiru egun horietan, umeentzako txokoak, ikuskizunak, garai hartako musika-emanaldiak, falkoneria, artisautza-produktuak eta ofizio-tailerrak egongo dira bertaratuko diren guztiak gozatzeko moduan. ◀

info+: www.plentzia.org

Okerrak zuzentzen

Plentziako EH Bildutik jakinarazi dutenez, Elena Deba eta Miren Zutoia Azurmendi zinegotzien argazkiak elkar trukaturatu agertu dira HIRUKA astekariko 18. eta 25. zenbakietan. Halaber, zinegotzien ordena honek behar zukeen: Crestelo, Deba, Azurmendi eta Agiriano. Barkatu eragozpenak.

Izozkiak,
empanada argentinarak
eta askoz gehiago
ERRIBERA 9
PLENTZIA
DELIVERY
688 84 81 47



ASADOR
GUREA
Plazatxo 5, Plentzia
Tel: 94.677.41.49
ONDO PASA JALETAN!

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus





Bilbokoa izango da Etxegoienek Biotz Alai abesbatzagaz egingo duen seigarren kontzertua. © ANNE ETXEGOIEN

Belaunaldi berria

Algortako Biotz Alai abesbatzak Akitanian, Lekeition eta Bilbon emango ditu hurrengo kontzertuak, Anne Etxegoienegaz.

Aste Nagusiaren erdialdean, abuztuaren 26an, eguaztena, Algortako Biotz Alai abesbatzagaz eta Bilboko Orkestra Sinfonikoagaz (BOS) emanaldia eskainiko du Anne Etxegoien kantari baxenabartarrak. Hitzordua 23:30ean ipini dute, Abandoibarran;

sarrera, doan. Aurretik, hilaren 8an, Akitaniako Beylemas udalerrian kantatuko dute Etxegoienek eta Biotz Alaik; eta hilaren 12an, Lekeition. Aste Nagusikoagaz, sei izango dira abeslari donapaleutarrak eta koru algortarrak batera ematen dituzten kontzertuak: ekainaren 18an, Donostiako Kursaa-

lean eskaini zuten saio pribatua, Laboral Kutxak antolatuta; uztaillaren 2an, ostera, Okzitaniako Lezignan-Corbieres udalerrian egon ziren; eta uztaillaren 19an, Zornotzan kantatu zuten. 2016rako emanaldi gehiago iragarri ditu Biotz Alai abesbatzak.

Arrakasta handia

Ipar Euskal Herriko euskal folkloeraren belaunaldi berrien ordezkari da Anne Etxegoien Donapaleuko (Nafarroa Beherea) 34 urteko abeslaria. Ahots liriko eta gozoa dauka; Baionako Aizkoa gizonezkoen abesbatzagaz aurrekari bako arrakasta lortu zuen Frantzian, herri-kanten bertsioakaz.

Etxegoienen azken diskoa, *Les Voix Basques*, urrezko diskoa izan da herrialde horretan, 60.000 kopia baino gehiago saldu. Frantziako salduenetariko TOP 10-en artean egon da; eta Youtuben, 700.000 bisita baino gehiago eduki ditu Mikel Laboaren *Txoria txori* kantuaeren Etxegoienen bertsioak. Euskal Herriaz gainera, hainbat herrialdetan ere kontzertuak egin ditu: Argentinan, Ameriketako Estatu Batuetan, Ingalaterran, Irlandan eta Espainian. Frantzian barrena *Basque eta Paz Tour* bira ere egiten dabil. ◀



Aurten bost urte beteko ditu Rock in Ria ekitaldiak, Debares taldearen parte-hartzeagaz. © DEBARES

Altzagan hasita, itsasadarrean gora egingo du Rock in Riak

Abuztuaren 22an, zapatua, Bilboko Aste Nagusiko lehenengo egunean, itsasadarrean gora kontzertua eskainiko dute El Tren de la Bruja eta Debares rock-taldeek. Horretarako, 20:30ean, Alzagako ontziralekuan hartuko dute itsasontzia sarrera erosten dutenek. Txartelak Alzagako Karraka Barria eta Astrabuduko Trabu Rock Rock tabernetan dande salgai (45 lagunarentzako lekua

dago), 30 euroan; 5 urtetik beherakoek doan edukiko dute bidaia. Pintxoak eta hainbat edari aukeran egongo dira, musikaz gainera. Hala, hiru ordu iraungo du musika emanaldiak; su artifizialak ikusi ostean, bueltan abiatuko dira. Bilbon gelditzeko aukera ere emango dute. El Tren de la Bruja taldearen ekimenez, bosgarren edizioa du aurtengoa Rock in Ria ekitaldiak. ◀

info+: 665 274 234 / 688 619 296

Margolariek Gorlizko kale eta bazterrak hartuko dituzte abuztuaren 1ean

Abuztuaren 1ean, zapatua, Kaleko 27. Pintura Lehiaketa egingo dute Gorlizen. Hala, gura duten guztiek parte hartu ahal izango dute, lan bakarra aurkeztuta; gaia librea bada ere, udalerriko «zerbait ezaguna» margotu beharko dute. Parte-hartzaileak 08:30etik 09:00etara hurbilduko dira kultur etxera (Krutxeta kalea, 5). Bertan, margolariek erabiliko dituzten orrietan zigilua ipiniko dute antolatzaileek. Lanak 13:30etik 14:00era aurkeztu beharko dituzte, Sertutxena eraikinean (Eloisa Artaza, 3); baita goizean jasoko duten fitxa ere (behar bezala beteta). Sari banaketa arrastian, 07:00etan, egingo dute Sertutxenan. Irabazleak 800 euro jasoko ditu; horrez gainera, hiru accesit egongo dira: bat, 300 eurokoa; diru kopuru berbereko beste bat, 16 eta 30 urte bitarteko parte-hartzaile onenarentzat; eta azkenik, 100 eurokoa, sari barik geratu den gorliztar onenarentzat. ◀

info+: www.gorliz.eu

Idiazabal jatorrizko gaztaren Plentziako lehiaketak 26 urte beteko ditu aurten

Plentziako Udalak eta Idiazabal jatorrizko deitura erregulatzeko kontseiluak antolatuta, abuztuaren 16an, domeka, gazta-lehiaketaren 26. edizioa egingo dute, itsas hiribilduko Eliza enparantzan. Hala, 10:00etatik 10:30era bitartean, euren gaztak aurkeztu ahal izango dituzte ekoizleek; Idiazabal jatorrizko deiturari atxikitakoek baino ezin izango dute parte hartu. Gero, 11:00etan, gazta saltzeko ipini dituzten 16 postuak zabalduko dituzte. Txakolinaz gozatzeko aukera ere egongo da.

Ordu berean hasiko dira epaileak dastatzen ekoizleek aurkeztutako produktuak, finalera heltzen diren gaztak hautatzeko asmoz. 12:30ak arte luzatuko da epaileen eginbearra, eta ordu erdi beranduago emango dituzte irabazleen izenak. Gaztarik onenaren egileak 300 euro jasoko ditu; bigarrenak, 150 euro; eta azkenik, hirugarrenak, 50 euro. Diru-sariaz gainera, garaikurra ere izango dute lehenengo hirurek. ◀

hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2015eko uztailaren 30etik irailaren 2ra arte



hiruka.eus



PLENTZIA

Benito ikusteko sarrera bikoitza irabazi gura?

Benito Lertxundi abeslari oriotarrak kontzertua eskainiko du abuztuaren 22an, zapatua, Plentziako Jai Alai pilotalekuan. Daborduko, salgai daude sarrerak 20 euroan, Kutxabankeko webgunean. Hala ere, HIRUKA konunikazio-taldeak txartel bikoitz bi dauzka emanaldira joan gura duten irakurleen artean zozkatzeko. Par-te hartu gura dutenek izen-abizenak

eta telefonoa bidali beharko dituzte, e-posta bidez (hirukakoop@hiruka.eus), edo hiruka.eus/zozketak loturaren bitartez. Abuztuaren 16a izango da horretarako azken eguna; eta irabazleen izenak hurrengo egunean, 17an, emango dira ezagutzera.

Plentziako emanaldian, Lertxundik 2012an plazaratutako *Oroime-naren oraina* diskoak kantak izan-

go dira nagusi. Kontzertu horregaz emango diote amaiera plentziar gut-tientzat berezi bihurtu den egun bati: San Antolin jaietako Antolintxu, Madalantxu, Antolintxu Txiki eta Madalantxu Txiki hezur-haragiz aurkeztu-ko dituzte zapatu horretan; eta hala, orduantxe, horiek irudikatuko dituz-ten herritarrek nortzuk izango diren jakingo dute Plentziakoek. ◀

2015/07/30 - 2015/08/02 - egitaraua begiratu

San Inazio jaiak

Algorta | Getxo

Hilaren 29an hasi ziren. Besteak beste, kuadrillentzako proba ikusgarriak, jaitisiera tradizionala, eta txipiroi-lehiaketa egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/07/30 - 2015/08/21 - orduategia begiratu

Ertibil erakusketa ibiltaria

Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo

Bertan ikusgai, 20 artista gazteren lanak. Orduategia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00, eguaztenteetik barikura, 12:00-14:00 eta 18:00-21:00 zapatuan eta 12:00-14:00 domekan. Doan.

2015/07/30 - 21:00

Zamazone taldearen kontzertua

Xurrut tabernako terraza | Gortiz

Jazz Ostegunak ekimenaren barruan. Doan.

2015/07/30 - 22:30

Loreak filma

Pilotalekua | Gortiz

Euskaraz. Sarrera doan.

2015/07/31 - 11:00

San Inazio Eguna

Elizako plaza | Plentzia

Besteak beste: umeentzako jolasak, triki-potooa, eta dantzaldia Jon Urbietagaz. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/08/01 - 08:30

Kaleko XXVII. Pintura Lehiaketa

Herrian zehar | Gortiz

Margotuko dituzten orriak zigilatuko dizkiete parte-hartzaileei 08:30etik 09:00etara, kultur etxean. Lanak aurkezteko epea 13:30etik 14:00etara izango da Sertutxenan. Bertan banatuko dituzte sariak 19:00etan. Doan.

2015/08/01 - 10:30

Sopelako Udalaren XXXI. Txirringularitza Saria

Udaletxeko plaza | Sopela

Gazte-kategoriako lasterketa.

2015/08/01 - 11:00

IV. Kuadrilla Eguna

Mendiguren plaza | Astrabudua

Besteak beste, umeentzako jolasak, kalejira eta dantza-erakustaldia, bazkaria (paella, 6 euroan), bakarrizketa eta disko-festa egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/08/08 - egun osoa

Joseba Amaro Corpasi gorazarrea

Futbol-zelai zaharra | Urduliz

Istripuan zendutako Dabelyu taldeko gitarristaren omenez. Motor-ibilaldia, paela-jana eta kontzertua egongo dira. Informazio gehiago: homenajeajoseba@gmail.com

2015/08/09 - 11:30

Bakailao Eguna

Elexalde | Berango

Bakailao pil-pilean egingo dute kuadrillek. Gaimera, goizez zein arratsalde, umeentzako jolasak eta puzgarriak egongo dira; eta 17:30etik aurrera, Hakker taldeagaz dantzaldia.

2015/08/10 - 10:00

San Lorentzo azoka

San Nikolas eta Bihotz Alai plazak | Getxo

Baserritarren produktuen erakusketa, salmenta eta txapelketa.

2015/08/10 - 22:00

Bihotz Alai abesbatzaren kontzertua

Bihotz Alai plaza (Algorta) | Getxo

San Lorentzo eguneko ohiko emanaldia. Doan.

2015/08/12 - 2015/08/15 - egitaraua begiratu

Portu Zaharreko jaiak

Algortako Portu Zaharra | Getxo

Besteak beste, nasapuntakoa, sokamuturra, altxaldiak (antzarak) eta Marmitako Lehiaketa egongo dira, Txo panpina erre aurretik. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/08/13 - 21:00

Lee Perk Trioren kontzertua

Xurrut tabernako terraza | Gortiz

Jazz Ostegunak ekimenaren barruan. Doan.

2015/08/14 - 2015/08/15 - egitaraua begiratu

Andra Mari jaiak

Erandiogoikoa | Erandio

Besteak beste, Goi-Alde dantza-taldeak emanaldia eskainiko du azken egunean. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/08/15 - 2015/08/16 - egitaraua begiratu

Urezarantzako jaiak

Urezarantz auzoa | Gortiz

Besteak beste: tute-txapelketa; disko-gaua, Oihan Vegagaz, eta Sukalki Txapelketa. Egitarau osoa: hiruka.eus/agenda

2015/08/16 - 10:00

Idiazabal Gaztaren

XVI. Lehiaketa

Eliz...

SOPELA

Filmak, euskaraz eta doan, Larrabasterran

Ilargipeko Zinema zikloaren barruan, pelikula bi ikusgai egongo dira abuztuan: hilaren 1ean, *Gazte harrigarria*, *TS Spivet*; eta 15ean, *Zipi & Zape eta nikaren kluba*. Saioak 22:15ean hasiko dira, Urgitxieta plazan; sarrera, doan. ◄

BARRIKA

Umeentzako jolasak, Txintxilandian

Uda FUN egitasmoak abuztuaren 5ean eta 12an ditu hurrengo hitzorduak Txintxilandia plazan (euria bada, liburutegian). 17:30etik 19:00etara, dantzaz, gynkanaz, tailerrez eta jolasez gozatze-ko aukera edukiko dute txikiak. ◄

URDULIZ

Zinema, euskaraz eta doan, ilargipean

Abuztuaren 21ean eta 28an euskarazko film bana eskainiko dute Urdulizko kultur etxe ondoko plazan, Kaleko Zinema zikloaren barruan: *Tarzan* eta *Ilberria (Ilunabarra Saga 2)*, hurrenez hurren. Emanaldiak 22:00etan izango dira. ◄

2015/09/01 - 18:00

Epertikere Kultur Elkartearen poteoa, herrian zehar
Basotxu jatetxea | Berango
Besteak beste, pintxoak, musika eta jolasak egongo dira. Parte-hartzea, libre.

2015/08/02 - 2015/09/09 - egitaraua begiratu
Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak

Itzubaltzeta eta Pinueta | Getxo eta Leioa
Besteak beste, goiti-beheren kronoeskalada, herri-krosa, eta ska-reggae jaialdia egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/02 - 17:00

Euskal presoen aldeko elkarretaratzea, hondartzan
Metro alboko zubia | Plentzia
Etixerat elkarreak deitu du eskualde osorako mobilizazioa. Kalejiran joango dira Plentziako hondartzaraino. 18:30etik aurrera, musika eta pintxoak, Danontzat gaztetxean.

2015/08/04 - 2015/08/06 - egitaraua begiratu

Santo Domingo jaiak
Elexalde | Berango
Besteak beste, dantzaldiak egongo dira Egan eta Joselu Anaiak, eta Xaibor musika-jartzalleagaz. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/04 - 2015/08/06 - 19:00

Ibon magoa
Udako liburutegiak | Getxo
Areetako Xake plazan, eta Algortako Telletxe zein Aldapa plazatan egongo dira. Euskaraz eta gaztelaniaz. Doan.

2015/08/05 - 2015/08/09 - egitaraua begiratu

Agirreko Andra Mari jaiak
Andra Mari auzoa | Gorliz
Besteak beste: Mar de Platako (Argentina) Beti Alai dantza-taldearen emanaldia; dantzaldia, Roberto Etxebarria trikititariagaz, eta Gorritiren animalia-ikuskizuna. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/06 - 2015/08/10 - egitaraua begiratu

San Lorentzo jaiak
Astrabudua | Erandio
Besteak beste, nagusientzako dantzaldiak, Olgetan Solas ekimena, eta paella-lehiaketa egongo dira, Ulpianori agur esan aurretik. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/06 - 21:00

Barru-Castaño bikotearen kontzertua

Xurrut tabernako terraza | Gorliz
Jazz Ostegunak ekimenaren barruan. Doan.

Urua enpataniza | Plentzia
Ekoizleek 10:30era arte edukiko dute gaztak aurkezteko. Sariak 13:00etan banatuko dituzte.

2015/08/17 - 2015/08/18 - egitaraua begiratu

Santimamiko jaiak
Santimami auzoa | Erandio
Besteak beste, auzoko nagusientzako hamaitakoa, idi-probak eta Olgetan Solas egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/20 - 21:00

Miguel Salvador Trio taldearen kontzertua
Xurrut tabernako terraza | Gorliz
Jazz Ostegunak ekimenaren barruan. Doan.

2015/08/21 - 2015/08/24 - egitaraua begiratu

San Bartolome jaiak
San Bartolome auzoa | Leioa
Besteak beste, kuadrillen arteko topa, marmitako-lehiaketa, asto-probak eta *Txirilo*-ren omenezko motorren kontzentrazioa egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/22 - 09:00 - 15:00

XXIII. Nekazaritza Erakusketa Antsonekoa plaza | Urduliz
Barazki, landare eta fruitu lehiaketak egongo dira.

2015/08/22 - 11:00

Antolintxu eta Madalentxuren aurkezpena

Plaztxoa | Plentzia
Kalejira eta mezaren ostean, San Antolin jaietako hezur-haragizko pertsonaiak aurkeztuko dituzte.

Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/26 - 2015/08/30 - egitaraua begiratu

San Agustin jaiak
Aitzaga | Erandio
Besteak beste, kuadrillen play-backa, gastronomia-lehiaketak, eta Olgetan Solas umeentzako euskarazko ekimena egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2015/08/27 - 21:00

Jon Urrutiaren kontzertua
Xurrut tabernako terraza | Gorliz
Jazz Ostegunak ekimenaren barruan. Doan.

2015/08/28 - 2015/09/02 - egitaraua begiratu

San Antolin jaiak
Herrigunea | Plentzia
Besteak beste, Gau-jai Zuria, mozorro-lehiaketa, koktelak, nekazaritza-azoka eta Urregorritzko A barketaren ematea egongo dira. Egitarau osoa: hiruka.us/agenda

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Antzerki-kabareta ikusgai, Getxon

Lili y Marlene en... *Loop*, *bucle* antzezlana ikusgai egongo da, Andra Mari auzoko Utopian zentroan. Komedia horretan, musikalak liluratuta, kabaretaren uhin berriagaz bat egin gura duen Lili gazteak (Leire Ucha) porrot egin duen vedettea ezagutuko du: Marlene (Eguzki Zubia). ◄

Noiz: Uztailaren 3tik abuztuaren 2ra

Ordua: Egundero 22:00etan

Non: Utopian (Eroiatxu Industrialdea, D eraikina, 1-2 lokalak. Getxo)

Sarrera: 1,0 euro (edaria barne)

Antzezleak: Leire Ucha (Oh my God) eta Eguzki Zubia (La Dinamika)

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

URIBE KOSTAKO UDA ARGAZKI-LEHIAKETA

Zelan eta non igarotzen duzu uda? Konta egiguzu zeurea irudien bitartez!

Uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean

1.000

euroko balioa duen
bidaiak* izango du
saritzat argazki
onenak!

* Bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego.



INFORMAZIO GEHIAGO:

www.hiruka.eus

hirukakoop@hiruka.eus



ANTOLATZAILEA

Uribe Kostako komunikazio-taldea, HIRUKA Koop. ELK., Eroski Bidaiak-en laguntzagaz. HIRUKA Koop. ELK-ko langile eta ahaide hurbilekoen, edo lanbidez zozketagaz lotura dutenen parte-hartzea ez da onartuko.

HELBURUA

Eskualdean udaz gozatzan duten edo munduan barrena oporretan dauden Uribe Kostako herritarren lekukotza jaso eta euskaraz harremantzeko topagune digitala eskaini gura du HIRUKAK argazki-lehiaketa honen bidez.

PARTE-HARTZAILEAK

Uribe Kostan jaio edo bizi diren 18 urtetik gorako herritar denek parte har dezakete.

PARTE-HARTZEA

EPEA: uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean (biak barne).
PARTE HARTZEKO BIDEA: argazkiak www.hiruka.eus agerkarian lehiaketarako propio egongo den atalera igo beharko dituzte parte-hartzaileek, bertan aurkitu duten datu-eskaera betez:

- Egilearen izen-abizenak, adina eta herria.
- Harremanetarako telefonoa.
- Argazkia noiz eta non ateratakoa den; eta izenburua.

BALDINTZAK

2015eko udan ateratakoak. Koloretan zein zuri-beltzean; beste inon argitaratu bakoak izan beharko dute argazkiek. Jpg edo png formatuetan. Ezin izango dute 5MB baino gehiagoko tamaina izan eta horizontalean ateratakoak izan beharko dute.

Parte hartzaileek esan gura du egileak aitortzen duela bidalitako lanaren eta horren edukia arduradua duela. Beraz, parte-hartzaile bakoitzak izango da hirugarren baten eskubideak ukatzearen gerta litezkeen errekamazio guztien arduradun bakarra, honen barruan sartuz muga bako jabetza industrialeko edo intelektualeko lege-jabetza eta irudi-eskubideak. Hiruka komunikazio-taldea kalte barik utziko duela hitzematzen du.

Parte hartzaileek emandako datuak zozketa bideratzeko erabiliko den HIRUKA Koop. ELK-aren fitxategi batean sartuko dira. Halaber, HIRUKA Koop. ELKak jakinarazten dizu du pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako koaren eta horretarako aplikatu daitezkeen araudien arabera noiznahi erabil dezakezula datu pertsonalak sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko edo horiei aurka egiteko eskubidea.

Horretarako, idatzi bat bidali behar diozu, postaz, HIRUKA Koop. ELK-ri, egindako eskaera adieraziz eta NANaren kopia batez, helbide honetara: HIRUKA Koop. ELK - Martikoena 16, 2. Solairua - 48992 Getxo, Bizkaia. Bestela, bezeroarentzako arreta-zerbitzura deitu: 944 911 337, edo mezu elektronikoko bat bidali hurrengo epostara: hirukakoop@hiruka.eus

Antolatzaileek bere gain hartzen dute argazki batzuk lehiaketatik kanpo uzteko eskubidea, giza eskubideen kontrakoak direla uste badute: bortizkeria, irainak, arrazakeria, sexismoa, ohorezko eskubidea, bakoitzaren intimitatea eta familiara edo bestelako eskubide urraketak adierazten dituzten lanak ez dira onartuko.

Hiruka Koop ELK. ez da irudien jabe izango, hala eta guztiz ere, jasotako argazkiak HIRUKAKo artxiboan gordeko dira, eta lehiaketan parte hartzen duenak onartzen du HIRUKA komunikazio-taldeak bere argazkiak erabili ahal izango dituela, beti ere egilearen izena

aipatuz. Errekamaziorik izanez gero, idatziz bidali beharra egongo da helbide honetara: HIRUKA Koop. ELK., Martikoena 16, 2. solairua - 48992 Getxo, Bizkaia. Beharra izanez gero, antolakuntzak beregan hartzen du oinarriak aldatzeko ahalmena eta, era berean, ahalmena du oinarrietan ez datorren edozein gertakizun konpontzeko.

2015ko Uribe Kostako Uda Lehiaketan parte hartzen duenak oinarri hauek bere osotasunean onetsiko eta onartuko ditu.

SARIA

Sari bakarra izango da: 1.000 euroko balioa duen bi nagusi eta haur batentzat mantenu erdiko astebeteko oporraldia Ohtels kateko hotel batean, behe-denboraldian, 2016ko ekainaren 30era arte, hautatutako data aukeran balego.

Ez da inolaz ere onartuko irabazitako sarien orde, beste sari batzuk edo dirua hartzea.

SARI-BANAKETA

Herribozketaz aukeratu da sariduna: boto gehien jasoko dituen argazkiaren egilea.

Bozketa www.hiruka.eus webgunearan bitartez egingo da, irailaren 1etik 29ra bitartean.

Erabakia ezin izango da eztabaidatu edo gaitzetsi.

Irabazlea nor den urriaren 1ean jakinaraziko dugu, Hiruka paperezko astekarian eta www.hiruka.eus agerkari digitalean. HIRUKA epostaz edo telefonoz harremanetan jarriko da saridunagaz.

HIRUKA Koop. ELK.-k bere egiten du, edozein arrazoi dela medio, zozketa behin betiko aldatzeko, bertan behera uzteko edo eteteko eskubidea, eta ez du inolako erantzukizunik izango horregatik.



Uribekostarrak non, Uribe Kosta han!

Zuretzat uda zer den adierazten duen argazkia HIRUKAri bidaltzea gura dugu: uztailaren 27tik abuztuaren 31ra bitartean.

Uribe Kostako astekarria
hiruka

EROSKI bidaiak
Ametsetan? Egizu legan!



Dabelyu rock-taldeko gitarra-jolea zen Joseba Amaro Corpas urduliztarra. © DABELYU

Joseba Amaro gogoan, abuztuaren 8an

Abuztuaren 8an, zapatua, Joseba Amaro Corpas zenari gorazarre egingo diote, urduliztarrek zeuzkan zaletasun nagusi biak uztartuz: musika eta motorrak. Dabelyu rock-taldeko gitarra-jolea otsailaren 19an hil zen istripuan, Unbe gainean bihotzekoak eman, eta motorretik erori zenean. Amarok etxetik Dabelyuren lokalera egin zuen azken ibilbide hura motorren gainean egingo dute senide eta lagunek, abuztuaren 8an, ekitaldiei hasiera emateko. Helmugara helduta, Iratxo Gorria Dantza Taldeak erakustaldia eskainiko du. Segidan, pintxo-poteoan abiatu-

ko dira Urdulizko tabernetatik futbolzela zaharreraino. Bertan, herri-bazkaria (haragi-paella) egingo dute 14:30ean; hainbat tabernatan egongo dira izen-emateko zerrendak (10 euro): besteak beste, Txiberri, Bumbo, Urduliz, Txiki-Barri eta Txozna. Musikari dagokionez, 16:30ean hasiko dira jotzen bertoko taldeak; eta 20:00etan Dabelyu, Quaoar, Vita Imana eta Hamlet bandak; sarrera doan izango da. Horrez gainera, ordenagailu eraman-garria eta beste hainbat gauza zozkatuko dituzte; txartelak 3 euroan egongo dira. ◀

info+: homenajeajoseba@gmail.com

Irailaren 3an abiatuko dute Getxophoto argazki-jaialdia

Begihandi elkarteak antolatuta, irailaren 3an zabalduko dute Getxophoto argazkilaritza-jaialdiaren bederatzigarren edizioa, eta hilabetez aukera egongo da argazki erraldoiak hamai-ka leku publikotan ikusteko. Aurten, ardatza *Bidaiak* izango da. Hirugarren eta azken urtez, Christian Caujolle ospe handiko kritikari frantses-okzitaniarra izango da jaialdiaren komisario (ikus 16. orrialdeko elkarrizketa). Ohi den legez, tailerrak, aurkezpenak, gidatutako bisitak eta hainbat ekitaldi ere eskainiko dituzte. Daborduko, horietako batzuen berri ematen hasi da Getxophoto, bere webgunean.

Ikastaroei dagokienez, irailaren 1etik 5era, Jan Hoek argazkilaria holandarragaz Delikatik (Araba) Getxorainoko ibilbidea egiteko aukera edukiko dute interesa daukatenez: Nerbioi ibaiaren ondotik lehenago, eta Ibaizabal albotik gero. Izen-ematea 395 euroan egongo da uztailaren 31ra arte, eta 440 euroan, abuztuaren 1etik aurrera. Salneurriaren barruan egongo dira ostatua eta gosaria. Daniel May-



Urriaren 4an amaituko da Getxophoto.

rit argazkilaria madrildarrak, oster, irailaren 4an emango du 8 orduko ikastaroa (70 euro). Besteak beste, bidaiakazetaritzaren oinarriak ezagutzeko ibilaldi laburra egingo du Mayritek, eta ondoren, argazkilariek eskura dauzkaten irudikapen-teknika berrietan sakonduko du, Getxophoto jaialditik adierazi dutenez.

Azkenik, *Itxialdia* irailaren 5ean izango da, 10:00etatik 18:30era. Fadrako erretegi zaharrea ipiniko dute argazkilaritzagaz lotutako gaiak eztabaidatzeko gunea. Izen-ematea 35 euroan egongo da. ◀

info+: www.getxophoto.com



Alejandro Cartagera, Carpoolers

2015

Iraila
September

BIDAIK TRIPS

Argazki Jaialdia
**Photography
Festival**

Komisarioa / **Curator**
**CHRISTIAN
CAUJOLLE**

Antolatzailea / Organizer

BEGIHANDI

Babesleak / Sponsors

Getxo
BIAZ

**BFA
DFB**

**FORUM FOTOGRAFICO
BARCELONA 2015**

**INSTITUT
FRANÇAIS**

**Estudios
Durerero**

bbk

www.getxophoto.com

«Edonork goza dezake argazkiakaz, areto batera sartu behar izan barik»

Christian Caujolle frantziar-okzitaniarra izango da hirugarren eta azken urtez Getxophoto argazkilaritza jaialdiaren komisarioa. Oraingo honetan, gai bezala bidaiak aukeratu ditu 1953an jaiotako kritiko ezagunak. Batetik, mundua ezagutu gura duten bidaiarien irudiak egongo dira ikusgai, udalerriko espazio publikoetan. Bestalde, behartuta euren etxeak utzi behar izan dituzten lagunen patua ere irudikatuko dute. Irailaren 3tik urriaren 4ra izango da Getxophotoren bederatzigarren edizioa.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Aurten, hirugarren eta azken urtea egingo duzu Getxophoto jaialdiko komisario-arduran. Zelakoa izan da bizi izandakoa?

Bizitza osoan eduki dudana esperientziarik onenetariko bat izan da Getxophoto; eta espero dut jaialdian emango dudana azken edizioa ere horrelakoa izatea. Espazio publikoan lan egiteko egundoko aukera eskaini dit Getxophotok; kalean lan egiteak arazoak sortzen ditu askotan, baina arazo horiek ere erakarriak izaten dira. Argazkilaritza ikusgai jartzeko beste modu bat da. Bestalde, zoragarria izan da lantaldeko kideakaz edukitako harremana; ezinezkotzat jotzen genituen gauzak egitea lortu izan dugu askotan. Gainera, askatasun osoz lan egiteko aukera eman didate. Izugarri ona da lankideen arteko giroa.

Ibilaldi honetan zer eskaini dizu Getxophotok?

Nagusiki, espazio publikoan egiten dudana lana urrunago eramateko aukera eman dit Getxoko argazkilaritza-jaialdiak. Bestalde, argazkilari gazteak aurkitu eta euren lanak hona ekarri ahal izan ditut, Getxophotoren bitartez.

Zuk zer eskaini diozu argazki-jaialdiari?

Galdera zaila egin didazu! Kar, kar. Getxophotoko lankideek esan beharko lukete hori.

Asko izango dira bizi izandako momentu onak...

Bai, hala da. Berbarako, zoragarria izan zen Cristina de Miguel argazkilariak aukera eman zigunean ar-

tean kaleratu bako irudi-sorta erakusteko. Hunkigarria da ikustea ere artista ospetsu bat Tailandiatik espresuki datorrela Getxoko jaialdian parte-hartzera; are gehiago, ikustea hemengo argazkilariakaz harremanak egiten dituela, lagunak eginez. Halako gauza asko dago aipatzeko; humanoak eta maitekorrak, aldi berean.

Gabeziarik nabaritzen duzu Getxophoton?

Ekimenen bat egiteko zailtasunak topatzen dituzun bakoitzean, diru-arazoak egoten dira tartean.

“**Dagoen bezala ondo dago jaialdia. Daukan tamaina erakargarria eta gustagarria da artezaleentzat**”

Zer edo zer amestu dezakezu, eta egiteko aukerarik ez eduki. Hala ere, esan behar dut, Getxophoton parte hartuta, ez dudala inolako frustraziorik sentitu. Ia beti gai izan gara buelta emateko konponezinak zirela ziruditen arazoei; eta lortu ez dugunean, ez da inoiz izan lantaldea horretarako gai ez zelako, beste arrazoi batzuegatik baino. Lantaldea ez da handia; hala ere, beti egon dira prest nik amesten nituenak

aurrera ateratzeko. Berbarako, jaialdiko komisario izan naizen hiru urtean Clement Briend gaztea sartu ahal izan dugu egitarauan. Urtero-urtero berrikuntzak bilatzen dabilen bestelako jaialdiren batek ez luke horrelakorik lortuko!

Beste argazkilaritza-jaialdiakaz alderatuz, zer berrikuntza eskaintzen du Getxophotok?

Getxophotoren ezaugarri nagusia da ikusleei lanak aurkezteko daukan modua; espazio publikoak, kaleetan zein fatxadetan... Edonork goza dezake argazkiakaz, areto batera sartzera behartuta sentitu barik. Erakusketak ulertzeko beste modu bat da; oso esku-zabala, gainera.

Zer edo zer faltan duzu?

Esan bezala, aukeratutako komisarioaren iritzia kontuan hartu ohi dute Getxophotoko lankideek; eta diru-faltagatik datoz gabezia gehienak. Eskatzeagatik, aurrekontu handiagora gura nuke ekintza ikusgarriak egin ahal izateko. Hala ere, nire ustez, dagoen bezala ondo dago jaialdia; daukan tamaina erabat erakargarria eta gustagarria da artezaleentzat.

Horrelako jaialdiak ondo ezagutzen ez dituzten lagunei argitzeko... Zer lan egiten du komisarioak?

Euren lanak erakutsiko dituzten artistak aukeratzeko dituzte komisarioak, eta, horren ostean, obra horiek non eta zelan jarriko diren aztertzen du, antolatzaileentzat laguntzagaz. Nire ustez, bigarren zati hori iza-



GET
XO
PHO
TO

Txartelak zozkatuko ditugu, Getxophotoren ekitaldi birako

Getxophotoren ekimenez, *Itxialdia* ekitaldirako eta Daniel Mayrit argazkilariak emango duen lantegirako bina txartelen zozketa egingo du HIRUKAK.

Daniel Mayrit (Madril, 1985) argazkilariak, besteak beste, “argazkilari, kazetari edo amateurren egoeraren inguruko ikuspegi zehatza eskainiko du” emango duen lantegian: irailaren 4an izango da; 8 ordukoa, 10:00-14:00 eta 15:00-19:00; parte-hartzea: 70 euro.

Itxialdia irailaren 5ean izango da, 10:00etatik 18:30era, Fadurako erretegi zaharrean (parte-hartzea: 35 euro). Ekimenaren helburua, “argazkilaritzarekin lotutako gaiak berraztertu eta eztabaidatzeko espazioa” eskaintzea da, berbaldiak egongo dira egun osoan, prozesu sortzaileaz eta prozesu horren hainbat gaiez.

Horrenbestez, zozkatuko ditugun ekimen bi horietarako txartelak gura izanez gero, abuztuaren 31 baino lehen, jakinarazi zure aukera eta izen-deiturak:

hirukakoop@hiruka.eus / 944 911 337

ten da lanik zailena. Izan ere, ikusleengan pentsatuz egin behar duzun kontu bat da; leku batean edo beste batean kokatuta, irakurketa ezberdina edukiko du argazkiak. Hala ere, parte hartuko duten argazkilarien hautaketa ez da erraza. Gustuko dituzun egile eta argazkiak topa ditzakezu, eta gero konturatu, irudi horiek irakurketa sakonagoa eta intimoagoa behar dutela, hau da, ez direla egokiak kalean erakusteko. Bestalde, Getxophoton garrantzi handia dauka katalogoak; jaialdiaren memoria izango den liburua da eta katalogoa.

Zelan aukeratzen dira jaialdian parte hartuko duten argazkilariak?

Gai bat aukeratzea da lehendabiziko lana. Horren arabera, estetikoki aniztasuna bilatu ohi dut parte hartzeko aukera eduki dezaketenen artean. Izan ere, argazkilaritza ez da bat; argazkilaritza-mota asko dago. Beste kontu bat da, azaltzeko zailagoa agian, hautatzen dituzun argazki ezberdinak euren artean zer lotura edukiko duten; denak batera zer hausnarketa eragingo dioten ikusleari.

Zergatik aukeratu duzu “bidaiak” gaitzat aurtengo erakusketarako?

Getxophoton hasi nintzenez, 2013an, *Beste mundu batzuk* izenburua jarri nion hiru urtean landuko nituen gaien trilogiari. Lehenengo urtean, *Ametsak* jorratu nituen; bigarrenean, *Borrokak*; eta aurtengoan, *Bidaiak* izango da gaia. Zergatik bidaiak? Bada, bi-

daia-argazkiak egiteko ohitura handia egon da argazkilaritzaren historian, hasiera-hasieratik; bidaiatzaileak izan dira argazkilariak, eta, hori gutxi balitz, bidaien irudiak argitaratzen dituen kazetaritza-eredu bat ere garatu da.

Gaur egun, inoiz ez da egon mundu honetan horrenbeste bidaiari zegoen garairik. Bidaiatzeko arrazoiak ere ezberdinak dira kasu batzuetan zein besteetan: herrialde bat bisitatu gura duten lagunak daude, turistak; mundua ezagutu gura dute. Bestalde, badago indarrez bere bizilekutik mugitu behar

“ Nazioartean oso ezagunak diren argazkilariak datoz; atzerrian oihartzun handia eman dio horrek Getxori ”

izaten duen jendea; gerren, natura-hondamendien edo zorigaitzen ondorioz, milioika lagunek utzi behar izaten dituzte euren etxeak. Horiek biak aurkituko ditugu Getxophoton.

Berrikuntzarik badago aurten?

Bai, noski! Argazki historikoa lantzen duen Jacques-Henri Lartigue ezaguna ekartzera lortu dugun;

Espanian inoiz argia ikusi ez duten irudiak ekarriko ditu Getxora. Gainera, ez da ohikoa Lartiguereen lanak kalean ikusi ahal izatea; museotan eta aretoetan erakusten ditu eta bere obrak.

Zelan har dezake parte jendeak Getxophoton?

Eztabaidak, tailerrak, bisita gidatuak... egoten dira egitarauaren barruan. Leku guztietatik etortzen da jendea; horrek ematen dio zentzua jaialdiari.

Getxo udalerrria mundu osoan ezagutzera emateko balio izan du Getxophoton?

Baiezkoan nago ni. Nazioartean oso ezagunak diren argazkilariak etorri ohi dira edizio bakoitzera; horrek oihartzun handia eman die jaialdiari eta Getxori berri atzerriko hedabideetan. Argazkiak erakusteko daukan moduak pizten du arreta handiena: espazio publikoetan, kale zein fatxadetan.

Zure ibilbide profesionalean mugarri bat izan da?

Komisario batentzat oparia da hiru urtez jarraian horrelako zerbait eraiki ahal izatea. Zalantza barik, nire bizitzako esperientziarik onenetarikoa izan da Getxophoton parte hartzea.

Getxophotora bueltatuko zara?

Bai, noski! Hamargarren edizioa beteko du datorren urtean Getxoko argazkilaritza-jaialdiak, eta ez dakit zelan ospatuko duten... Baina, ni bertan egongo naiz; eta espero dut hurrengoetan ere egotea. ◀



Selekzioen alde, martxan

Aurreko 14 edizioetan, euskal selekzioaren aldeko bere harri kokorra ekarri du mendi martxa. © MENDI MARTXA

Euskal selekzioen alde, mendi-martxa abiatuko dute zapatuan, Algortatik. Ziburura heltzeko zortzi egun emango dituzte, lehenengo biak Uribe Kostan ibiliko dira.

Pasa den udaberrian bere ibilbidea amaitutzat jo zuen ESAIT Euskal Selektzioaren Aldeko Iritzi Taldeak. 18 urtez euskal selekzioen aldarrikapenerako hamai-ka ekimen egin ostean, Euskal Herriko jendartearen kontzientziazio-fasea beteta dagoela iritzi zion martxoan. Horrez gainera, “ofizialtasunaren aldeko dinamikan indarrak batu” ahal izateko,

alde batera egin zuen herri-ekimenak, eragile ezberdinen arteko “sinbiosi eta elkarlana” errazteko.

Mendi Martxak 15 urte

Halere, ESAITek hartutako erabakiak ez ditu itzali mugimendu horrek isiotutako sugar denak. Mendi Martxak 2000. urtean ekin zion bere ibilbideari ESAITen babespean, eta ordu-

urtero-urtero egin dute, huts egin barik. Aurten ere, antolatzaileek aurrera jarraitzea ebatzi dute, eta ofizialtasunaren zaleakaz ospatuko dute 15. urtemuga. “ESAIT desagertu arren, selekzioaren inguruko gaiak bizirik dirau”, laburbildu du kontua Txumai Iturria antolakuntzako kideak. Helburu hori babesteari begira jarraituko du Euskal Selektzioaren Aldeko Mendi Martxak bere aletxoak jartzen, “konbentziturak baikaude gure ekarpena, apala izanagatik, bide egokian emandakoa dela”. Aurten, euskal kostaldea zeharkatuko dute, egunero zazpi-zortzi or-

duko txangoak eginez, 08:00ak aldera irten, eta 17:00etan heldu. Zapatuan, abuztuak 1, Algortako Portu Zaharretik abiatuko dira. Afaria Plentziako Danontzat gaztetxean egingo dute, 17 kilometro ibili ostean. Domekan, martxako etaparik luzeena egingo dute, 31 kilometrokoa. Besteak beste, Basorda senaiatik pasa, eta Lemoizko zentral nuklearra bisitatuko dute, Bermeora ailegatu aurretik. Hurrengo egunetan, Ea, Mutriku, Zarautz, Donostia, Hondarribitik pasa ostean, Ziburun izango dute azken helmuga. ◀

informazioa eta izen-emateak: mendimartxa.eus

San Juan, Hondarribia eta Getxo, ziaboga onak



San Juaneke emakumeek irabazi zuten Getxoko VII. Ikurrina. © MAIDER CELADA

Pasa den asteburuan, Uribe Kostak lau hitzordu izan zituen arraunagaz. Lehenengo estropada Plentzian jokatu zuten beteranok, zapatuan. Bertan, Zumaia denborarik onena egin arren, Getxok irabazi zuen, adinez nagusiagoak baitziren

Getxoko arraunlariak. Domekan, Algortako Portu Zaharrean, San Juaneke irabazi zuen Euskotren Ligako bandera. Eskifaian Ondiz Lekubarri getxotarra dute. Bertan, San Miguel Ligan zein KAE-2n Hondarribiko Ama Gualupekoa trainerua nagusitu zen. ◀

Itzubaltzetar bat, munduko longboard lehian



Lau gurpileko kirolaria da Garcia. © BLAS BRAINS

Alex Garcia Guisan “Txiruka” itzubbaltzetarrak Munduko Longboard Txapelketan parte hartu zuen. Pragako iparraldean dagoen Kozakov natur-parkean jardun zuen Garciak, iragan uztailaren 21etik 26ra. Lehenengo sailkapen-proban lehiatik kanpo geratu zen, tamalez. Lehiaketan mundu osoko 180 lagunek hartu zuten parte. “Oso pozik egon naiz egindako lasterketetatik, azken unean ihes egin arren”, adierazi du 25 urteko itzubbaltzetarrak. Mekanika ikasten dabil, eta ostalaritzan behar egiten du. ◀

Urdulizen, martxak Txiri Txiri dira



Gutxi batzuk hasi ziren. © URDULIZKO UDALA

Gero eta gehiago dira Txiri Txiri martxa osasungarrietara batzen diren urduliztarrak. Udalak zabaldu duenez, pasa den apirilaren 11n egin zen orain arteko ediziorik arrakastatsuenak: 181 pertsonak hartu zuten parte. Sekretua “Urdulizko auzotarrak hartu duten inplikazioan” bilatu beharra dagoela diote udal iturriek; “martxa antolatze eta zabaltzeko lan zoragarria egiten dabilta”. Daborduko, hurrengo ekimena prestatu dute: abuztuaren 14an Urduliztik Beñako basilikara joango dira. ◀

Otxoaren omenezko zirkuitua



Proban, 81 txirrindularik parte hartuko dute.

U rtero legez, datorren barikuan, hilak 31, egingo da Getxoko Txirrindularitza Zirkuitua. Rikardo Otxoa omentzen duen probak 70. edizioa egingo du aurten. Punta Galea txirrindulari-elkarteak antolatzen du lasterketa, eta, besteak beste, Getxoko Udalaren babes dauka.

Proba goizeko 09:30ean hasi, eta 13:30ean amaituko da, gutxi gorabehera; Getxo, Berango eta Leioatik 170 kilometroko zirkuitua bete ostean. Aurteko urteetan legez, irteera eta helmuga Getxoko epaitegien aurrean izango dira; beraz, akabua Ereagako hondartzatik gora aldatsean izateak ikusizun itzela ziurtatuko du. Aurtongo

ekitaldian, nazioarte-mailako hamar talde lehiatuko dira: Movistar, World Tour mailakoa; Rusvelo, Caja Rural eta Cofidis, kontinental profesional mailakoak; eta Bike Aid, Burgos BH, Murias, Keith Mobil Partizan, Inteja MMR eta Start-Massi, kontinental mailakoak. Aurre-inskripzioa bete dutenen artean, probaren irabazle bi daude: Giovanni Visconti italiarra (2012an nagusitu zen) eta Carlos Barbero espainiarra (2014an irabazi zuen). Dirudenez, Movistar izan daiteke talderik indartsuena. Bertan, Viscontiz gainera, Igor Anton eta Beñat Intxausti bizkaitarrak ere zaindu beharko dituzte arerioek. ◀

info+: Puntagalea.com

Txapeldun Saria atzamar puntan du Lointekek

D atorren abuztuaren 4an, Iurretan amaituko da Emakumezkoen Euskaldun Saria. Iragan uztailaren 15ean Larrabasterran egindako azken-aurreko proban lortutako bigarren postuari esker, Lointekek Alicia Gonzalezek lasaitasun handiagoz egingo du Iurretako azken etapa; daborduko 12 puntuko aldea dauka Gloria Rodriguez bigarrenagaz. Azken etapa 14:30ean hasiko da. Gazte eta eliteko txirrindulariek 81,9 kilometro egin beharko dituzte; kadeteek, ordea, 42,5 kilometroko distantzia besterik ez dute egin beharko. ◀

Goiherrik beste txapel bat gura du: 560 kilokoa

G oiherrri sokatira-taldeak denboraldiko hirugarren txapelketa irabazi gura du. Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa bi lortu ditu orain arte: 680 eta 600 kilokoak. 640 kilokoak ihes egin zion; Laukizko Gaztedi taldeak eroan zuen. 560ko lehiari dagokionez, Gaztedi eta Goiherri berdinduta helduko dira finalera. Barikuan, Bilboko Zorrotza auzoko kiroldegian jokatu da finala. Biek dituzte 11 puntu. Goiherri etsaiaren lurraldean nagusitu zen, Laukizen. Pasa den zapatuan, Berangon, ordea, Gaztedik irabazi zuen. ◀

Lasto-botatze demak, Algortan eta Astrabuduan

D atorren abuztuaren 13an, eguena, Euskal Herriko X. Lasto Botatze Txapelketa egingo dute Algortako Portu Zaharrean. Getxoko Herri Kirolen Elkarteak eta Euskadiko Herri Kirolen Federazioak antolatuta, norgehiagoka 18:30ean jokatu da, bertako txosnagunean. Aurreko txapelketa denak Jose Martin Bustinza "Tubi"-k irabazi ditu. Bestalde, Algortakoa baino egun batzuk lehenago, beste txapelketa bat hartuko du Erandioko Astrabudua auzoak. Hilaren 10ean, astelehena, Bizkaiko lehiaketa izango da bertan, goizeko 12:00etan. ◀

San Inazioko esku-pilota lehia erabakitzean

G etxoko Euskal Pilotak eta Itxartu Taldeak antolatutako Inaki Deuna Esku Pilotaren X. Txapelketa amaierara helduko da abuztuaren 1ean, zapatuan. San Inazio egunean jokatzekoak ziren finalak, baina antolatzaileek erabaki dute iragarritako eguraldi kaxkarrari saihesten ahalegintzea. Algortako batzokiko frontoiak hartuko ditu partidak goizeko 11:00etatik aurrera, eta 12:30erako espero dute neska-mutilei sariak ematea. Denera, bost kategoriatan lehiatu dira parte-hartzaileak: umetxoak, umeak, gaztetxoak, kadeteak eta gazteak. ◀

Bila zenbiltzan marka guztietako tailerra



10W40 olio + filtroa aldatzea

39'99 €* BEZa eta eskulana barne.



motrio pneumatikoa

175/65 R14 82T

49€* -an

*Prezio horiek kartarrean 5 litroa arteko edukiera duten ibilgailuentzat dira. Ez dago sartuta filtroaren prezioa. Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du eta/edo izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.

*Pneumatiko 1 aldatzearen azken prezioa. Muntaketa, prekatzea eta hondakinaren kudeketa-kostua (EO 1519/2005) ez daude sartuta (EO 1619/2005). Eskaintzak 2015/09/30era arte iraungo du, etarado izakinak agortu arte, lehenengo gertatzen dena.



Tutallermotrio

Garantía y Compromiso

Patrocinador oficial de la Liga Nacional de Fútbol Sala LNF5

motrio Algorta – Arriluce tailerrak

Errotatxu industrialdea, 4. pabilioia. 48993 ALGORTA - BIZKAIA

Tel.: 94 431 91 05 / 669 37 99 31

E-maila: algorta@talleres.motrio.es

www.motrioalgorta.es

Ordutegia, astelehenetik ostiralera: 09:00 - 13:00 eta 15:00 - 19:00



Urdulizek hamaikako berria du



2001ean, Antsonekoa areto-futbol taldea sortu zuten Urduliz FTn lekuri ez zutenek. © ANTSONEKOA

Urduliz Futbol Taldeak 20 urte beteko ditu 2016an, datorren udagoienera abiatuko den denboraldian. Bide horretan, Josu Unibasoren Zuzendaritzak kluba eta harrobia sendotzea erabaki du, gizezkoen talde berri bat sortuz. Hamaikako berria klubeko hamabigarren taldea izango da, eta Bizkaiko Hirugarren Mailan lehiatuko da. Jantzkeraren aldetik, Urdulizko taldearen armari bera jantziko du: kakarraldoa, Santa Mariñe haitzak, ikurrina eta futbol-pilota, marko berde baten barruan.

Futbolari gazteak

Urdulizko klubak zabaldu duenez, talde berriaren helburua bikoitza da. Alde

batetik, zubi bat eskaini gura diete Gazte Mailan bere ibilbidea amaitzen duten mutilei, Ohorezko Mailan dabilen lehenengo talderaino ailega daitezen. Izan ere, orain arte, jautzia oso gogorra zen talde batetik bestera, eta era horretan kolpea leunduko delakoan daude.

Jokalari urduliztarren aterpea

Beste aldetik, Urdulizko edo inguruko jokalaria beteranoagoi ere aterpea emango die Bizkaiko Hirugarren Mailako talde berriak, duten eskarmentua gazteagoakaz parteka dezaten. Lehenengo denboraldirako taldearen bizkarrezurra ardatz horretatik etorri da, beste taldeetako jokalaria urduliztar batzuk gonbidatuta. ◀

Udako futbol torneotan hamaika partida ikusgai

Abuztuaren 5etik 8ra, ohiko Itzurbaltzeta/Romoko jaietako saria antolatu du Arenasek. Lehia horretan izango dira Bigarren B Mailan arerio izango dituen hiru klub bizkaitar: Amorebieta, Gernika eta Portugalete. Horrenbestez, ez da izango Leioaren aurkako derbyaz gozatzerik, baina sa-

riketa baliagarria egingo zaio Jon Perez "Bolo"-ri Ligako lehiakideen ahulguneak ezagutzeko.

Abuztuaren 6an, ordea, Getxok antolatutako torneoa izango da Faduran, eta Barakaldo eta Real Union Bigarren B mailako taldeak izango dituzte aurkari Jon Morenoren gizezkoek. ◀



Oraindino eskualdeko futbol-klubek ez dute taldeak osatzen amaitu.

Indarberritzeari ekin dio Jonas Ramalhok

Jonas Ramalhok gimnasioan entrenatzeari ekin dio, pasa den maiatzaren 20an egindako ezker belauneko lesioa osatu eta sasoiaren berreskuratzeko asmoz. Datorren urtarilean has liteke Athleticen. Baina bitartean, 22 urteko atzelari itzurbaltzetarrak Iker Muniain taldekide eta laguna du ondoan, Lezamako instalazioetan beragaz lanean. Biek lesio bera pairatu zuten udaberrian. Ramalho ebakuntza egin zioten pasa den ekainaren 18an, Gasteizen, ezker belaunean izan zuen aurreko lotailu gurutzatuaren haustura konpontze-



Muniain eta Ramalho, Lezaman. © IKER MUNIAIN

ko. Medikuek adierazi zuten, Mikel Sanchez sendagileak egindako "ebakuntza espero zen bezala" egin zen. ◀

Pla Olinpiar Jokoetatik hurbilago dago

Barbara Pla Getxo Rugby Taldeko jokalaria katalanak gertuago ditu datorren urteko Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoak. Izan ere, Lisboako Torneoan irabazi zuen Espainiako emakumezkoen zazpiko selekzioak, Barbara Pla jokariagaz. Horri esker, 2016ko Rioko Olinpiar Jokoetako azken atarikorako txartela ziurtatu zuten, bigarren aukeran. Horrenbestez, 2016ko ekainean jokatuko den lehiaketan parte hartuko du Adrian Locken konbinatuak. Barbara Plak eta espainiarrek Rioko hitzordurako azken lekue-tariko bat eskura lezakete bertan. ◀

Algortan eta Itzurbaltzetan, herri-krosak

Domekan, abuztuak 2, Algortako San Inazio jaietako Kantxa Herri-krosaren 21. edizioa izango da. Bederatzi kategoriatan daude bilduta lasterkariak. Lehenengoak goizeko 11:30ean irtengo dira. Ehunka parte hartzailek korrikan egingo dute ondoren. Atzenengoak goizeko 12:30ean abiatuko dira. Izen-ematea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago egin ahal da. Abuztuaren 6an, eguena, Itzurbaltzeta/Romoko X. Herri-krosa egingo dute, Ganeta plazan abiatuta, 19:45etik aurrera. Izen-ematea bertan egin daiteke. ◀



Lehiaketa: Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



Getxo Folk_{eko}
kontzertu nagusi
bakoitzerako

4 sarrera bikoitz
ditugu, Getxoko Kultur
Etxearen ekimenez

Abuztuaren 17a baino lehen,
helarazi erantzuna, zure
izen-deiturak, zein emanaldirako
sarrerak gura dituzun eta
harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus
edo 944 911 337

Zorion agurrak

Urtebetetze,
ezkontza zein
jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37



AMAIA
BARRIKA
Alabaren partez

Zorionak, amatu!!! Karolina erraldoia dastatzeko eguna heldu da!! Egun ederra igaro ezazu eta jarraitu zaren modukoa izaten, asko maite zaitut!



OIHANE
LEIOA
Kuadrillaren partez

Zorionaaak, rubiiii!!! Egun polita igaro ezazu urtebetetzea ospatzen! Asteburuan ospatuko dugu ezin baino hobeto ("a fuegis lokis")! Milaka muxu, guztion partez!



ZURIÑE
ALGORTA
ESTEPONA
Laguntxoak

Zorionak, "Peio"!!! Ongi etorri hamarkada berrira! Pilo bat musuuuuu!!! Eta dozena erdi ardo zuri, mesedez! Eskerrik askooooo

Sudokua

					5		1
2		7					6
	8			1		9	
							8
	9		8		6		
		4		7	3		
	3	1		2			5
					7		9
		9			8	2	7

Gogoan hartu 1etik
9ra arteko zenbaki
denek agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

Soluzioa

7	4	2	8	3	1	6	5	9
6	1	3	7	9	5	8	2	4
9	3	1	9	6	2	4	1	3
5	9	8	6	2	4	1	3	7
2	5	1	3	7	6	4	9	8
4	3	7	9	5	8	2	6	1
8	6	9	1	4	2	5	7	3
3	2	6	4	1	7	9	8	5
9	8	4	5	6	3	7	1	2
1	5	7	2	8	9	3	4	6

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Zure moduan, horoskopu honek ere oporretara gura du joan, ahalik eta lasterren. Hortaz, ez itxaron ezer datorren astean, datorren hilean barik!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Aste honetan, arazo larri bat izango duzu. Hainbeste festagaz, gaitza izango da kuadrillakoak ados jarri eta baten batera joatea!



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Aspaldi ez zara horren zalea, baina oraingo honetan kuadrillen play-backa ikustea mereziko du. Ez ezazu galdu!



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Garbigailuan, galtzerdi bakartia topatuko duzu. Gainera, ondo begiratzuz gero, konturatuko zara ez dela zurea. Hasi ikerketa-lanak.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Txupina botatzen dutenean, apur bat alden du. Bestela, umemoko batek goitik behera zikinduko zaitu, arrautzak jaurtiz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Txosnetan zein tabernetan, giro ederra topatuko duzu datozen asteotan. Dantza egiteko aukerarik ere ez zaizu faltako.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Oporretan joan gura bai, baina dirurik ez? Lasai, aukerak badituzu! Hiru, zehazki. Bidali HIRUKAra zure udako hiru argazki, eta ahalegin du saria lortzen!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Hondartzara, mendira zein alboko kafetegira joanez gero, eroan aldean beti argazki-makina edo sakelako telefonoa!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Parrandan ondo murgiltzeko, behar-beharrezkoa da ondo jatea. Ez kantitate asko, baina bai sarri. Etxeko jakiak zein pintxorik gozoenak dastatu!



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Aurtengo abuztuaren 15a egun seinatua izan daiteke zuretzat. Argi ibili; ez lokartu; zentzuz jokatu, eta disfrutatu, ahalik eta gehien.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Metroko makinak behingogatik ezusteko ona emango dizu oraingoan. Baliatu aukera, ezohikoa baita kontua!



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Badakizu, abuztuaren 31ra arte udako argazkiren bat bidali ahal izango duzu HIRUKAra. Sari potoloa irabaz dezakezu!

60 urte arroz artean, paella onenaren bila

Nazioarteko Paella Lehiaketak 30.000 lagun batu zituen joan den uztailaren 25ean Getxoko Aixerrotako landetan. Urtero legez, paella usaina eta jai giroa izan zen nagusi egurrezko etxolez eta olanez betetako inguru horretan. Aurtengoa, LX. edizioa izan da. ARGAZKIAK: PATXI LOPEZ/KEPA URKITZA/ITXAS ARGIA

IKER RINCON MORENO



Ehun kuadrillak parte hartu zuen joan den uztailaren 25ean Getxoko Itxas Argia elkarteak antolatutako Nazioarteko Paella Lehiaketan. Aurten, 60 urte bete ditu jardunaldi gastronomiko ospetsuak, eta, beste urte batez, 30.000 lagun inguru batu zituen Aixerrotako landetan.

Urtero legez, Getxoko, eta, bereziki, Algortako kuadrillek Santiago Deunaren bezperako egunetan Aixerrotako landak okupatu zituzten, egunari behar bezala aurre egiteko beharrezkoak diren etxolak muntatzeko. Egunak, asteak, orduak... beharrezkoa den denbora ematen dute gazteek egun berezi horretako txokoa prestatzeko; egurra, kartoia, olana, irak... denak balio du behin-behineko babeslekua egiteko. Hala ere, oraindino badaude azken egunera arte itxaroten dutenak euren karpaxoa ipintzeko. Horixe da gazteen lagun-taldeen urteroko kontua. Nagusiek, ostera, eremu "ofizialera" jo ohi dute, Itxas Argiak esleitutako toldoetara, hain zuzen ere. Hala ere, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula olana horietako bat lortzea, urtez urte kuadrilla berberak eusten diete eta euren, Ezkarne Unanue Itxas Argiako presidentek baieztatu duenez. Bada, aurtengo edizioan, utzitako 20 toldo-erdi zozkatu dituzte, besterik ez.

Eguna heltzean, festarako prestaketak goizeko lehen orduetan hasten dituzte tradizio handiko ospakizun gastronomikora hurbildutako gazte eta ez hain gazteek: beharrezko guztia igo, soinu-ekipoak ipini, behin-behineko sukaldia atondu, mahaia prestatu, sua isiotu... Askok eta askok hurrengo goizaldeko ordu txikietara arte egoten dira bertan, egurrez eta olanaz sortutako "diskoteka" inprobisatuetan dantzatan edo... Izan ere, paellak prestatzeaz gainera, egunak aukera eta ekitaldi asko eskaintzen ditu bertaratutakoen gozamenerako: dantzen alardea, musika eta erromeria, barbarako. Baina, zelan bihurtu da ohitura?

1956tik hona

Lehenengo Paella Lehiaketa 1956ko uztailaren 25ean egin zen, hiru lagunek bultzatuta: Damian Ayo, Antonio Bilbao eta Felix Yurrebaso. Hiru getxoztar horiek oso ezagunak ziren herrian; Irurena elkarte osatzen zuten. Kirol-zaleak ziren hirurak, eta horregatik, Azkorri futbol-taldearen zelai ondoan antolatu

zuten lehiaketaren lehenengo edizioa. Jaia Getxoko trenbidearen alboan hasten zen, txistularien kalejira batez. Inguruetako baserrietan geldialdiak egiten zituzten txistulariek, eta baserritarrek gailetak eta ardo gozoa ematen zizkieten: hamaiketako. Rivaseko markesaren alargunaren pinudia inguratzen zuten hormen ondoan egin zen lehendabiziko paella-lehiaketa. Hogei lagun inguruk parte hartu zuten egun hartan, baina arrakastaren arrakastaz, hurrengo urtekoa antolatzen hasi ziren, eguna amaitu baino lehen...

Bigarren edizioa leku berean egin zuten, baina ospakizunera hurreratu zen jendetzaren ondorioz, hirugarren edizioa Azkorri hondartzarako bide albo landetan egitea erabaki zuten. 1958an egin zuten hori, Ayok, Bilbaok eta Yurrebasok, beste hainbat lagunegaz batera, Itxas Argia elkarte sortu zuten. Harrezkero, elkarte horrek hartu du lehiaketa antolatzeko ardura, eta inguru horietan egin zuten beste hamar urtez (1958-1967). Izan ere, landa horie-

Egurre Erreten kuadrillak irabazi du aurtengo Nazioarteko Paella Lehiaketa; Singapurreko sukaldariek 13. postua lortu dute

tan aparkaleku bat eraiki, eta Azkorri hondartzako sarbideak berriro egin eta egokitu zituzten; horregatik aurkitu behar izan zuten antolatzailak beste leku bat. Hala, Getxoko Udalak jabetza pribatuko Aixerrotako lursail batzuk ematea izan zen irtenbidea. Eta ordudunik, han egiten da lehiaketa.

Nazioarteko hitzordua

Getxoztarrek mende erdia baino gehiago daroaite paella onenaren bila, eta urtez urte Europako paella-lehiaketarik handienetarikoa bilakatu dela esan daiteke. Ekimen horren arrakastak munduko hainbat lekutako sukaldariak erakartu ditu, eta horrela, izaera internazionalako lehiaketa izatera heldu da. Aurten, Singapurretik etorritako 3 sukaldari hurbildu dira norgehiagoka gastronomikoan lehiatzeko asmoz; Australiako



lehiaketako irabazleak dira, baina, gurean, 13. postuan lotu dira. Izan ere, Algortako Egurre Erreten kuadrillak lortu dute 60. edizioaren txapela. Epaimahaiak hiru ezaugarri hartzen ditu kontuan puntuaziorako: zaporea, otik 20ra; arrozaren puntua, otik 20ra; eta aurkezpena, otik 10era.

Azken urteotan paellarik onena bilatzen bada ere, orain dela hainbat urte, bertaratutako kuadrillen etxolak ere puntuatzen zirela akorduan du Unanuek; "duela urte pilo, kuadrillek orain paellaren aurkezpenarako egiten dituzten detailak egiten zituzten, baina etxola moduan. Hartara, batzuek Arri-luze egiten zuten; beste batzuek, berriz, Bizkaia Zubia, Galeako gotorlekua...". Ohitura hori galdu egin da, baina kuadrillen irudimenak dena emanda jarraitzen du oraindino ere, aurkeztutako paellen dekorazioan ikus daitekeen legez. ◀





Lehen/Orain Algorta



Erretratua

Javier Berasaluze Bilbao

Urdulizko abade emeritua, eta laster jubilatuta geldigaitza



Irailean utziko dio Urdulizko abade izateari. Izan ere, 75 urte gaz badu erretiroa hartzeko sasoia eta gogoia. Halere, ondokoak laguntzen jarraitu gura du.

gorretarra zen Javier Berasaluze Urdulizera abade heldu zen egunean, 1979ko azaroaren 28an. Gaur egun, oster, urduliztar peto-petoa da, eta beste abade bat etorriko bada ere, berak bertan bizitzen jarraituko du. Are gehiago, hil ostean Urdulizen lurpera dezaten eskatu du, «herri hau maite dut-eta!».

Berasaluzek ez dauka argitzerik zein izango den bere ordezkoa: «oraindino ez dakigu, badira zurrumurruak, baina ez dakigu zein izango den». Halere, gaitz ikusten du berak egin legez, datorren abadeak bere denbora osoa Urdulizi eskaini ahal izatea: «errealitatea onartu beharra dugu: ez dago erreleborik, eta hori dela-eta, seguru asko hemen abade-lanak egingo dituen hurrengoak ardura bera izango du inguruko hainbat herritan», azaldu du. Agian horregatik, erretiroan denbora zertan emango duen galdetuta ez du birritan pentsatu: «laguntzen besteari, hemendik beharrak izango ditut: Be-

rangon, behar bada; Laukizen, behar bada; Plentzian edo Barrikan; edo bertan ere bai, jakina. Bertan ere lagundu beharko dut. Parroko datorrenak agintzen didana, eta, bestalde, nire senak dioena, besterik ez. Parroko berriak agintzen badit, eta nik ahal badut, egingo dut». Besteak beste, gaixoak bi-

“ Parroko datorrenak agintzen didana egingo dut, eta, bestalde, nire senak dioena ”

sitatzea, mezaren bat ematea, eta hamaika errekadu ditu buruan, beti ere osasunak uzten dion bitartean. Berasaluze 1968an heldu zen Uribe Kostara. Lemoizen 11 urte eman ostean, bidertatu zuten Urdulizera. Hasieran, «hainbatek gorrotoz» hartu zuela dio, baina horiekaz ere harremanak estutu ditu: «herri hau maitatzen ikasi dut». ◀

HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus P.-Ku.: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarmínaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Zuberoa Iturburu
Testuen orrazketa: Iratze Ormatza

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez/Ninbe Landa
Kudeaketa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95 CC-BY-SA
Ale-kopurua: 8.000 ale



Erakunde laguntzaileak:



Hedabide honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak jaso ditu